



DONOSTIAKO
UDALAREN LANKIDETZARAKO,
ELKARTASUNERAKO ETA GIZARTE
ERARALDAKETARAKO HEZKUNTZARAKO
V. GIDA PLANA 2026-2029




DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Lankidetz
Cooperación

Aurkibidea



1	Zinegotziaren aurkezpena	5
2	Sarrera	7
3	Nondik gatoz?	10
	3.1 Donostiako Udalaren elkartasun eta lankidetzaren ibilbidea	10
	3.2 Aurreko planaren ebaluazioa	12
4	Non gaude?	16
	4.1 Testuingurua	16
	4.2 Garapen-agendak: Nazioartekoa, estatukoa, autonomia-erkidegokoa eta tokikoa	18
5	Zein da esparrua eta nora goaz?	26
	5.1 Helburu orokorra	26
	5.2 Zeharkako printzipioak	26
	5.2.1 Giza garapen jasagarria	27
	5.2.2 Elkartasuna, erantzukidetasuna eta munduko/tokiko ikuspuntua	31
	5.2.3 Koherentzia eta kalitatea	32
	5.3 Interes bereziko eremuak	34
	5.3.1 Giza Eskubideak defendatzea eta sustatzea	34
	5.3.2 Parte-hartzea eta tokiko/munduko ikuspegia sendotzea	36
	5.3.3 Emakumeen ahalduntzea eta genero-ekitatea sustatzea	36
	5.3.4 Jasagarritasun ekologikoa eta soziala bultzatzea	38
	5.3.5 Hizkuntzen berdintasuna eta hizkuntzen aniztasuna sustatzea	39
	5.4 Agenteak	40
6	Planaren tresnak	44
	6.1 Jarduketa-modalitateak	44
	6.2 Tresnak	47
	6.2.1 Dirulaguntza deialdi publikoa	47
	6.2.2 Udalaren zuzeneko lankidetzaren ibilbidea	48
	6.3 Parte hartzeko guneak	49
	6.4 Baliabideak	51
7	Onarpena, jarraipena (UPO), sistematizazioa eta ebaluazioa	56
8	3 Apustu estrategiko, 15 ekintza-lerro	60



1

Zinegotziaren
aurkezpena

1 Zinegotziaren aurkezpena

Nazioarteko lankidetza ez da urrutiko politika edo politika abstraktu bat. Mundua ulertzeko moduarekin, hiri gisa defendatzen ditugun balioekin eta oraindik ere milioika pertsonaren bizitza baldintzatzen duten desberdintasunen aurrean hartzen dugun erantzukizunarekin lotuta dagoen politika da. Gatazkak, klima-krisia, derrigorrezko desplazamenduak eta giza eskubideetan atzera egitea besterik ia ez dugun testuinguru global honetan, lankidetza indartzea ez da aukerako gauza; betebeharrerik eta politikoa da.

Lankidetza Plan berri honek datozen urteetako norabidea jartzen du, eta Donostiak pertsonak, eskubideak eta justizia soziala ardatz dituen lankidetza eraldatzailearekin duen konpromiso irmoa jasotzen du. Ez da ibilbide-orri teknikoa bakarrik, gure asmoen adierazpena ere bada, izan nahi dugun hiriari eta gero eta interdependenteagoa den mundu honetan jokatu nahi dugun paperarena.

Lankidetza Kontseiluarekin eta gure hirian elkartasuna bultzatzen duen gizarte-sare zabalarekin izandako elkarrizketaren eta lan partekatua ondu ondorioz sortua da plan hau. Beren begiradak, esperientziak eta proposamenak ekarri dizkiote GKE, elkarte, kolektibo eta pertsona konprometitu horiek. Parte-hartze prozesu horrek, planaren edukia indartzeaz gain, funtsezko beste zerbait ere indartzen du: sarean lan eginda eraikitzea lankidetza, konfiantza eta erantzukidetasuna direla oinarri.

Gure apustua argia da: iparraldearen eta hegoaldearen arteko desberdintasunak murrizten laguntzea, lan egiten dugun lurraldeetan prozesu komunitarioak indartzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea, eta jarduera guztiak inklusioak, jasangarritasunak eta giza eskubideek zeharkatuko dituztela bermatzea. Badakigu Donostiak eragin-ahalmen mugatua duela; baina, badakigu urrats bakoitzak gehitu egiten duela zerbait, eta konpromisoari eusteak ekartzen duela benetako eragina.

Lankidetza ez da beste herrialde batzuetan garatzen diren proiektuak garatzea bakarrik; hemen bertan, gure hirian bertan, sentsibilizatzea, hezte eta kontzientzia sortzea ere bada, gure kontsumo-ohiturek, gure erabaki kolektiboek eta gure politika publikoek garapen bidezkoagoa eta jasangarriagoa lortzen laguntzeko. Kanpoan egiten dugunaren eta barruan eraikitzen dugunaren arteko koherentzia konpromiso horren parte funtsezko bat da.

Hala, % 0,7ko helbururantz egitea, sarean lan egitea finkatzea, Donostiak hiri solidario gisa jokatzeko duen papera indartzea eta lankidetza baliagarri, hurbileko eta eraldatzailean sakontzea dira plan honekin hartu ditugun erronka batzuk.

Mundu bidezkoagoa, berdinezaleagoa eta jasangarriagoa gure txokoan egiten ditugun gauzetatik bertatik ere hasten baita; eta elkartasuna ez baita balio bat bakarrik, pertsonen mesederako politika publikoa egiteko modu zehatz bat da.

Iñigo Garcia Villanueva

Aniztasuneko, Inklusio eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria

2
Sarrera



2 Sarrera

Dokumentu honen bidez, Donostiako Udalaren Lankidetzarako eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Gida Plana aurkeztuko dugu, Udalak 2026–2029 urte bitartean lankidetzan izango duen politikaren orientabide nagusiak zehazten dituena.

Testuinguru global konplexuan sortutako dokumentua da. Hor dugu, adibidez, desberdintasun sozial eta ekonomikoen gorakada, gorroto–diskurtsoen eta fundamentalismoen igoera, nazioarteko zuzenbidea eta balio demokratikoak zalantzan jartzea edota Palestina eta horrelako herrien aurkako giza eskubideen urraketa larrien eta krimenen lekuko izatea. Eta horrek guztiak handitu egiten du elkartasunarekin, justizia globalarekin eta herrien arteko lankidetzarekin konprometituta izan beharra.

Plan berria azkeneko urteotan egindako bidean oinarritzen da, eta eutsi egiten dio giza garapen jasangarria (GGJ) izateko konpromisoari. Hala, orain ere lehentasunezko zat dauka zenbait jarduera–eremu: giza eskubideak, genero–berdintasuna, tokiko/munduko ikuspegia izatea eta jasangarritasun ekologikoa eta soziala sustatzea, esate baterako. Era berean, Donostiako ehun solidarioarekin etengabe hitz egitearen eta politiken koherentzia sustatzearen garrantzia ere berresten du; eta, horrekin batera, sistematizazioa ere sartzen du, kontuak emateko eta etorkizuneko jarduketak hobetzeko funtsezko pieza izateko.

Egiturari dagokionez, honela antolatuta dago dokumentua: lehenik, sarrera du. Hor jasotzen da abiapuntua; testuinguruaren, lankidetzeta–politiken eta udalaren ibilbidean izandako mugari nagusien azterketa labur bat eginda eratu duguna. Jarraian, helburua, zeharkako printzipioak, lehentasunezko arloak eta funtsezko eragileak definitzen dituen esparru orokorra du. Ondoren, politika hori ezartzeko eskuragarri diren tresnak zehazten ditu; datozen lau urteetarako aurreikusitako apustu estrategikoak eta ekintza–ildoak ondoan dituela. Eta, azkenik, jarraipen–, sistematizazio– eta ebaluazio–proposamen bat planteatzen du.

V. Gida Plan hau datozen urteetarako ibilbide–orri izateko eratuta dago, eta duen asmoa da konpromisoak, helburuak eta aurrera egiteko moduak markatuko dituen tresna argi bat eskaintzea eta, aldi berean, sor daitezkeen aldaketetara eta erronketara egokitzeko izan behar den malgutasunari eustea. Orain arte emaitza onak eman dituzten ekintzei eustea eta indartzea nahi dugu, eta, hein berean, aurrera egiten lagunduko diguten neurri berri batzuk ere sartzea. Bereziki, politiken koherentziari bultzada nabarmen bat eman nahi diogu, plan honek proposatzen duen gizarte eraldaketan sakontzeko bidea izateko. Alde horretatik, urteko plan operatiboak egitea eta sektorearekin etengabeko elkarrizketa izatea funtsezko elementuak izango dira plana behar bezala ezartzeko eta garatzeko.



3 Nondik gatoz?



3 Nondik gatoz?

Oraina ulertzeko, ezinbestekoa da egindako bideari begiratzea eta aztertzea. Orain arte egindakoa ebaluatzeak, izan ere, aurrera egiteko eta egindako lana hobetzeko modua ematen baitu.

Donostiako Udalak arlo honetan egindako ibilbide luzearen parte bat orain dela gutxi bukatu da, ez baita denbora asko Gizarte Eraldaketarako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren IV. Gida Plana (2021–2024) amaitu dela. Arrazoiak aurrerago zehaztuko baditugu ere, esan dezakegu Lankidetzarako, Elkartasunerako eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzarako V. Gida Plana (2026–2029) aurrekoaren jarraipena dela. Plan berri hau Udalak lankidetzaren, elkartasunaren eta gizarte eraldaketarako hezkuntzan aurretik egindako ibilbidearen ondorio zuzena da, eta hortik ateratako ikaskuntzak eta lorpenak finkatu eta etorkizunera proiektatzen ditu, bai eta oraindik eginkizun den erronka mordo bat ere.

3.1 Donostiako Udalaren elkartasun eta lankidetzaren ibilbidea.

Donostiako Udalak urte asko daramatza lankidetzaren naiz gizartea eraldatzeko hezkuntza ekimenak bultzatu eta donostiarren elkartasuna sendotzen. Orain aipatuko ditugun ekimen hauek dira elkartasunaren eta lankidetzaren ibilbide luze horretako mugarri batzuk.

Esan daiteke 1986an hasi zela Udalaren konpromiso hori, Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetako 50 haur saharar haiek aurreneko aldiz hartu zituenean. Handik bi urtera, 1988an, senidetze hitzarmena sinatu zuten Donostiak eta Bojador-ko barrutiak, eta halaxe hasi zen Donostiako eta Saharako herrien arteko elkartasun-harremana, oraindik ere segitzen duena. Ildo beretik, 1997an lankidetzaren hitzarmena egin zen Bosniako Goražde hiriarekin, eta, horrela, gatazkak eta desberdintasunak diren tokiekiko konpromisoa indartu egin zen.

1994an sortu zen ofizialki Lankidetzarako eta Tolerantziarako Bulegoa (geroago Lankidetzarako Negoziatua deitu zitzaion). Harrezkero, hark izan du Udalaren lankidetzapolitiken ardura, eta GGKEen eta sektoreko beste erakunde batzuen bidelagun ere izan da, urtero dirulaguntza deialdiak aterata eta tokiko hainbat ekimen babestuta.

Era berean, 1996az geroztik, Lankidetzarako Tokiko Euskal Erakundearen Elkarte Euskal Fondoako kide ere bada gure Udala; Zuzendaritza Batzordeko kide aktibo, hasiera-hasieratik.

2003an, lankidetzarako udal-negoziatuak bere estrategiaren gaineko hausnarketa prozesua sustatu zuen, ordura arte egindako ibilbidea aztertu eta Iparralde-Hegoaldea elkartasuneko ekintza handik aurrera norantz bideratu zehazteko. Atzera begirako ariketa honek Nondik Nora (2003–2005) partaidetza-prozesua ekarri zuen hurrena. Tokiko entitate askok parte hartu zuen lankidetzarako udal-politikaren lehentasunak eta estrategiak kolektiboki definitzeko prozesu hartan, eta han lortutako adostasun nagusien artean ziren: Lankidetzako Aholku Batzordea sortzea eta Gida Plan bat egitea, plangintza estrategikoa egiteko tresna bat izateko.

Aholku batzorde horren aurrekaria 1996. urtea bada ere, 2008an aktibatu zen berriz formalki (sektoreko erakundeekin adostutako erregelamendua eginda), eta martxan da harrezkero. 2012an berriro egin zen, Udalaren gainerako aholkularitza batzordeen

funtzionamenduarekin bateratzeko. Eta hobetu beharreko gauza batzuk badituen arren, Lankidetzako Aholku Batzordea erreferente bat da oraindik ere beste udal-kontseilu batzuentzat eta beste erakunde batzuentzat ere, batez ere gaiak lantaldeetan (aurrekontuen lantaldea, politiken koherentziarena, dirulaguntzena...) lantzeko modu eraginkorragatik.

Lankidetzako ildo estrategikoak definitzeko eta zehazteko, orain arte lau plan egin dira:

Lankidetzaren eta Garapenerako Hezkuntzaren I. Udal Plana (2008–2011).

Donostiako Udalaren Lankidetzaren eta Giza Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren II. Gida Plana (2012–2015)¹

Lankidetzaren eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren III. Plan Zuzendaria (2017–19)²

Donostiako Udalaren Lankidetzaren eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren IV. Gida Plana (2021–2024)³

Ibilbide luze horretan, beste mugarri garrantzitsu bat 2010ean jarritakoa izan zen: Udalaren Osoko Bilkurak Pobreziaren aurkako Ituna onartzea. Itun horretan jasotakoaren arabera, genero ekitateak berekin dakarren giza garapen jasangarriak izan behar du nazioarteko komunitatearen lehentasunezko helburu, eta, beraz, pobreziaren eta berdintasunik ezaren aurkako borroka erantzukizun kolektiboa da Konpromiso horren ondorioz, ekintza zehatz batzuk egin ziren; adibidez, lankidetzarako udal-politiken kalitatea indartzea, eta sentibilizazioa eta gizarte eraldaketarako hezkuntza sustatzea, gizarte eraldaketarako tresna izateko. Gainera, lankidetzara bideratutako aurrekontua udal-aurrekontuaren % 0,7 izatea lortzeko helburua ere jarri zen, oraindik lortu ez bada ere.

2017an, Donostiako Udalak bat egin zuen (H)abian 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategiarekin, bere gain hartu zituen estrategia horretatik datozen zortzi konpromisoak eta gizarte bidezkoago, solidarioago eta eraldatzaileago baten alde egiten jarraitzeko borondatea berretsi zuen.

Azken urteotan, Udalak aktibo parte hartzen jarraitu du beste erakunde batzuei lotutako zenbait gunetan; Eusko Jaurlaritzaren Elkartasunari eta Lankidetzari buruzko 3/2024 Lege berria eraikitzen, konparazio baterako. Eta aipatzeko modukoa da, orobat, Lankidetzaren Euskal Kontseiluan duen presentzia eta parte-hartzea ere.

Bestalde, programa historiko batzuei bultz egiten ere jarraitu du: Donostia Mundu Artean-i, adibidez, hiriko agenda solidarioa jasotzen duen komunikazio-tresna baita, 2025ean 30 urte bete dituen.

1 <https://www.donostia.eus/ataria/documents/3946347/4803893/IV.+Plan+Zuzendaria+2021-2024.pdf/ea5f6f3e-d410-c43d-e9c4-e5fd461d3540?t=1626686238354>

2 <https://www.donostia.eus/ataria/documents/3946347/4803893/lankiPlanEuskFinal201702.pdf/2e2aa3cb-91a7-4183-b2cc-faa19ef5d761>

3 https://www.donostia.eus/ataria/documents/3946347/4803893/PlanZuzLankiDonostia_2012-2015_EUS_anexoGABE.pdf/432f3f6e-42f4-4098-9f7a-f9d1efa503c6

3.2 Aurreko planaren ebaluazioa

Aurreko planekin egin den bezala, IV. Planarekin ere egin zen kanpo-ebaluazioa⁴, inplikaturako eragile guztiek parte hartuta han. Ebaluazio horri esker, ondorio eta gomendio batzuk atera ziren, eta oso baliotsuak izan dira haiek plan berri hau egiteko orduan. Jarraian, Lankidetzarako IV. Udal Planaren ebaluaziotik ateratako ideia batzuk aipatuko ditugu.

Planaren diseinua COVID-19aren pandemian egokitu zen. Oso garai berezian, testuinguruaren azterketa osoa zeharkatzen duena. Bestalde, tartean ziren eragileek ondo baloratu zuten dokumentua, parte-hartzearen eta adostasunaren emaitza zela eta. Plan horrek aldaketa esanguratsu batzuk izan zituen egitura, helburu, zeharkako printzipio, interes bereziko eremu eta beste alde batzuetatik. Eragileek oso ondo hartu zituzten aldaketa horiek; batez ere, dokumentua argia eta ulerterraza zelako. Horri esker, erraz barneratu eta bereganatu ahal izan zen plana.

Helburuen eta ekintzen garapenean egindako aldaketa eta hobekuntza horien ondorioz, asmo handiko plana izan zen plan hura. Besteak beste, Koherentzia Politikoa ardatz estrategikotzat sartu zelako. Aurreko planekiko inflexio-puntutzat hartu zuten hori. Baina, ez zen erraza izan, batez ere Planean jasotako Politiken Koherentziarekin lotutako proposamenak zehaztu eta gauzatzeko orduan. Zailtasun horietako asko gaiaren beraren konplexutasunak eta Udalaren antolamendu-kulturak eragin zituen, Udalaren antolamenduan konpartimentazio handia baitago arloen artean.

Hala ere, posible izan zen ildo horretan aurrera egitea. Hor da, esate baterako, Berdintasun, Elkartasun eta Eskubide Zibilen zinegotzi eskuordearen mendeko arloek egindako txostena, politiken koherentziari buruzkoa (2023). Eta oso kontuan izan dugu guk txosten hori plan berri hau egiteko orduan.

IV. Planeko ekintzei dagokienez, hiru ardatz estrategikoen eta haien 14 ekintza-ildoen koadroaren laburpenak erakusten du planifikaturako jarduera gehienak bete edo betetzetik gertu geratu zirela, eta horrek erakusten du asko aurreratu dela plana ezartzen.

Lankidetzaren eta Garapenerako Hezkuntzaren Udal Kontseiluak balioespen handia izan zuen, parte hartzeko modu ona ematen duelako, eta erreferentetzat hartu zen, nahiz eta hobetzeko arlo batzuk ere identifikatu ziren, batez ere erabakitze gaitasunari, parte-hartzeari eta genero-joerari dagokienez.

Udaleko talde teknikoak eragile politiko eta sozialen konfiantzari eutsi zion, konpromisoagatik eta lanagatik. Hala ere, langile falta zela-eta, gaitasuna izan zuen talde horrek, eta kezka sortu zuen IV. Plana amaitzeko eta hurrengo planifikatzeko gauza izango ote zen.

Laburbilduz, alderdi kontinuista bat (helburu batzuekiko konpromisoari eutsi eta indartu egin baitzen) eta helburu sakonagoak eta anbizio handiagokoak sartzeko beste bat izatea konbinatu zituen IV. Planak. Hala ere, azken horiek izan ziren inplementatzen zailenak, eta, kasu batzuetan, ez zen horiek zehaztea lortu. Gainera, aurreko planetan ere bete gabe ziren gai batzuek hala segitu zuten, baita ikuspegi kontinuistenetan ziren

4 https://www.donostia.eus/ataria/documents/d/lankidetz/evaluacion-iv-plan-director-de-cooperacion-y-epts-donostia_eu

batzuk ere: Udalaren aurrekontuaren % 0,7 lankidetzarako izatea eta jarraipenarekin eta ebaluazioarekin lotutako erronkak, besteak beste.

IV. Planaren ebaluazioaren bidez lortutako gomendioek, bestetik, balio handiko informazioa eman digute Donostiako Udalaren Lankidetzaren, Elkartasunaren eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Gida Plan hau egiteko.

4
Non
gaude?



4 Non gaude?

4.1 Testuingurua

Edozein plan diseinatzeko ere, planaren testuinguruaren azterketa zorrotza egin behar da aurrena, horrek baldintzatzen eta bideratzen baitu planaren formulazioa. Testuinguru hori dimentsio batek baino gehiagok osatzen du. Hor izaten dira dimentsio sozialak, politikoak, ekonomikoak, sanitarioak, ekologikoak eta kulturalak, besteak beste, iparralde eta hegoalde globalean elkarreragiten dutenak. Eta ingurune hori ondo ezagutzeak eraldatu nahi diren errealitateei eragiten dieten faktoreak eta dinamikak identifikatzeko eta ikusarazteko modua ematen du. Testuingurua kontuan izateak, diagnostikoa aberasteaz gain, proposatutako ekintzak egokiagoak eta eraginkorragoak izateko bidea ere ematen du. Gero eta interkonektatuagoa eta interdependenteagoa den mundu honetan –eta tokikoa eta globala erabat nahastuta– ezinbestekoa da testuingurua kontuan hartzea esku-hartze koherente, eraldatzaile eta jasangarriak izatea bermatzeko.

Nazioartean, estatuan naiz hemen bertan dugun testuinguruak ere erronka eta aukera garrantzitsuak planteatzen ditu garapenerako lankidetzako eta gizarte eraldaketarako hezkuntzako politiketarako. Une kritiko batean gaude. Munduan diren krisi sozial, ekonomiko, sanitario, klimatiko eta geopolitiko asko bata bestearekin lotuta daude, eta haien ondorioek oraindik eta okerrago eragiten diete munduan diren populazio ahulenei. Hauek dira zenbait iturritatik ateratako titular batzuk, gaur egun den testuinguruaren ikuspegi bat eskaintzen dutenak:



1.100 milioi pertsona bizi dira pobrezia multidimentsionalean 112 herrialdetan, NBGPren eta Oxfordeko Unibertsitatearen arabera. Pertsona horien % 40 gatazkek edo hauskortasun-egoerek eragindako herrialdeetan bizi dira.⁵

Munduko biztanleriaren erdirik pobreenak aberastasun globalaren % 2 besterik ez du; eta % 10 aberatsenak, berriz, % 76 kontrolatzen du.⁶

Hemendik aurrera ere desberdintasunak orain daraman erritmoan handitzen segitzen badu, 100 urte baino gehiago beharko dira pobrezia desagerrarazteko.⁷

Munduan den genero-arrakala % 68,5 itxi da. Egungo erritmoan, 134 urte beharko dira erabateko genero-parekotasuna lortzeko.⁸

Oro har, emakumeek gizonek baino % 20 gutxiago irabazten dute munduan. 2024an, gizonek 100 dolar irabazi zituzten; 51,8 emakumeek.⁹

15 urte edo gehiagoko 640 milioi emakumek baino gehiagok (gutzizkoaren % 26) bikotekidearen indarkeria jasan dute.¹⁰

5 <https://www.undp.org/es/comunicados-de-prensa/1100-millones-de-personas-viven-en-situacion-de-pobreza-multidimensional>

6 <https://news.un.org/es/story/2023/02/1518412>

7 <https://www.oxfam.org/es/el-saqueo-continua-pobreza-y-desigualdad-extrema-la-herencia-del-colonialismo>

8 <https://es.weforum.org/stories/2024/06/este-es-el-estado-de-la-paridad-de-genero-en-2024-y-lo-que-debe-cambiar-para-cerrar-la-brecha-de-genero-global/>

9 <https://www.swissinfo.ch/spa/la-brecha-de-g%C3%A9nero-en-los-salarios-se-mantiene-a-nivel-global,-seg%C3%BAn-cifras-de-la-oit/88909954>

10 <https://www.unwomen.org/es/articulos/datos-y-cifras/datos-y-cifras-violencia-contra-las-mujeres>

Nazioartean, klima-krisiak azeleratzen jarraitzen du, neurritz kanpo eragiten die hegoaldeko herrialde globalei eta arriskuan jartzen ditu giza eskubide oinarrikoenak ere. Horrez gain, areagotu egin dira gatazka armatuak (Ukrainakoa, Yemengoa eta Sudangoa, adibidez), bai eta enkistatuta eta, askotan, ahaztuta diren gatazka ere (Mendebaldeko Saharakoa, esate baterako). Israelgo estatua Palestinan egiten ari den genozidioa aipatu gabe; ipar globalaren begirada konplizearen eta, zenbaitetan, baita axolagabearen aurrean.

Aldi berean, iparraldeko nahiz hegoaldeko herrialde askotan demokrazia izaten ari den atzerakadak eta diskurtso autoritario, matxista eta xenofoboaren gorakadak ahuldu egin dituzte lankidetzaren aldean eta nazioarteko elkartasunaren printzipioak. 2030 Agendak eta Garapen Jasangarrirako Helburuek (GJH), oraindik ere indarrean badira ere, erronka izugarriak gainditu behar dituzte benetan inplementatuko badira.

Nahikoa da begiratzea nola, munduko leku askotan, sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako aurrerapenek eta estrategiek zer oztopo dituzten erabat garatu eta eskubideak aske baliatzeko. Edota nola, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna –edozein eremutan aztertuta ere, eta emakumeen aurkako indarkeria izanik desberdintasunik odoltsuena–. pandemia-gaitz globala den oraindik ere. Eta nola, era berean, giza eskubideak eta lankidetzaren sektorea defendatzen dituzten pertsonen eta erakundearen kriminalizazioa gero eta handiagoa den, eta nola horrek arriskuan jartzen duen haien lana eta legimititatea testuinguru askotan.

Horri guztiari gehitu behar zaio lankidetzarako diru funtsak murriztea edota, zuzen-zuzenean, baita lankidetzaren agentziak ixtea ere, Amerikako Estatu Batuetan gertatu dena.

Testuinguru konplexu eta interdependente horretan, Donostiako Udalak berretsi egiten du lankidetzaren deszentralizatu eraldatzaile, feminista, ekologista eta dekolonialaren aldeko konpromisoa; giza eskubideak errespetatzea, genero-berdintasuna, sexu- eta genero-aniztasuna, ingurumen-jasangarritasuna eta justizia globala sustatzeko moduko lankidetzaren. Lankidetzarako, Elkartasunerako eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzarako V. Gida Planak (2026 – 2029), inplikaturako eragileekin diren aliantzak indartzea du helburu, hiri solidarioago eta tokiko eta munduko erronkekin erantzukideago izango den hiri baterantz egiteko.

■ 4.2 Garapen-agendak: Nazioartekoa, estatukoa, autonomia-erkidegokoa eta tokikoa

Garapen-agendak, nola nazioartekoak hala tokian-tokikoak ere, garatu eta egokitu egin dira, etengabe eraldatzen ari diren testuinguruetara. Nazioarteko agendetan naiz tokikoetan diren gaiak aztertuz gero, erreferente inportante batzuk identifika ditzakegu. Erreferente horiek jarri zirela hamarkada batzuk pasatu badira ere, erreferente esanguratsuak dira oraindik ere; ez dira orduan planteatutako helburuak lortu-eta.

Garapen-agendetan den erreferente garrantzitsuenetako bat **klima-krisia** da. Nahiz eta askotan orain asko ez dela ateratako gaitzat hartzen den, badira hamarkada batzuk haren gaineko eztabaida hasi zela. Esparru horretako mugarri garrantzitsu bat Kiotoko Protokoloa¹¹ (1997) izan zen; nazioarteko lehen akordioa, juridikoki loteslea eta herrialde garatuei 2008-2012 bitartean berotegi-efektuko gasen emisioak gutxienez % 5 murriztea

11 https://unfccc.int/es/kyoto_protocol

eskatzen ziena. XX. mendearen azken herenean, kontzientzia sortzen hasi zen nazioartean, klima-aldaketaren larritasuna eta berotze globala arintzeko neurriak hartzeko premia zela eta.

Klimaren gaineko goi-bilerak –Conference of the Parties izenez ere ezagunak (COP, ingelesez)–, hainbat herrialdetako liderrak biltzen dituzten nazioarteko topaketak dira, klima-aldaketaren erronkei aurre egiteko estrategiak eztabaidatzeko eta adosteko egiten direnak. Konferentzia horiek Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioarekin hasi ziren (1992an onartu zen, Rio de Janeiro egindako Lurraren gaineko goi-bileran), eta, harrezkero, urtero egin dira munduko hainbat tokitan.

Funtsezko une bat COP21 izan zen, 2015ean Parisen¹² egin zena. Ia 200 herrialdek bat egin eta karbono-isuri txikiko garapen-eredu bat hartu zuten. Azkeneko konferentzia Bakun (Azerbaijan) egin zen, 2024ko azaroan.

Akordio eta adierazpen horiek eratzten dute klima-aldaketaren aurka borrokatzeko esparru globala, horiek jartzen dituzte-eta herrialde guztiek beren gain hartu behar dituzten helburu zehatzak, jarraipen-mekanismoak eta finantza- eta gardentasun-konpromisoak.

Baina V. Plan hau egin bitartean ere izan dira berri batzuk, arazo larri horren aurrean dugun erantzukizuna hartu behar horren ildoan doazenak. Nazioarteko Justizia Gorteak (GJZ) 2025eko uztailaren 23an adierazi zuen “arrisku unibertsal existentziala” dela klima-aldaketa, giza jarduerak eragindakoa, batere zalantzarik gabe, eta estatu kideek hori prebenitzeko “betebeharra” dutela¹³.

Gortearen kontsulta-irizkiak –NBERen Batzar Nagusiak 2023ko apirilean eskatutakoak– ondorioztatzen du nazioarteko zuzenbideak ezartzen duela estatuak daukatela «ingurumenari kalte esanguratsuak prebenitzeko betebeharra, hartarako izan behar adinako arduraz jardunda», bai eta «eskura dituzten bitarteko guztiak erabiltzeko» betebeharra ere, haien jurisdikzioaren edo kontrolaren pean egindako jarduerak klima-sistemari eta ingurumenaren beste alderdi batzuei «kalte nabarmenik» ez eragiteko. Epai horrek aitortzen du klima-krisiak zuzenean eragiten diela Giza Garapen Jasangarriarekin zerikusia duten eskubideei.

Garapen-agendetako beste erreferente handietako bat **genero-berdintasuna** da. Estreinako aurrekari garrantzitsua XX. mendearen erdialdekoa bada ere (1953koa, zehazki; orduan egin baitzen Emakumearen Eskubide Politikoei buruzko Konbentzioa), emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko helburua urrun dago oraindik ere. Nazioarteko lehen tresna horrek emakumeek bozkatzeko eta hauteskunde publikoetan hautatuak izateko eskubidea aitortu zuen. Baina, oraindik ez da erabat bermatu herrialde batzuetan, eta atzera ere egin du zenbaitetan.

Borroka horretan inflexio-puntua izan zen Emakumearen aurkako Diskriminazio Modu Guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa¹⁴ (CEDAW), Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1979an onartua. Nazioarteko tratatu horrek emakumeen aurkako diskriminazioa definitu, desagerrarazteko lege-esparrua ezarri eta genero-berdintasunerako agenda global baten oinarriak jarri zituen.

12 <https://unfccc.int/es/acerca-de-las-ndc/el-acuerdo-de-paris>

13 <https://news.un.org/es/story/2025/07/1540221>

14 <https://lac.unwomen.org/es/digital-library/publications/2024/08/convencion-sobre-la-eliminacion-de-todas-las-formas-de-discriminacion-contra-la-mujer-comite-para-la-eliminacion-de-la-discriminacion-contra-la-mujer-panama>

Beste une garrantzitsu bat 1995ean gertatu zen: Emakumeari buruzko Laugarren Mundu Konferentzia, Beijingen¹⁵ egin zena. Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma onartu ziren han. Ordura arte ez zen halako ekintza-planik. Lehentasunezko 12 arlo identifikatu zituen hark, emakumeek eta neskek mundu osoan aurrera egitea sustatzeko, ahalduntzearen eta gizartearen eremu guztietan bete-betean parte hartzearen bidez.

Beijingo Biltzarra egin eta hogeitaz urtera, 2015ean, 5. helburua (Genero-berdintasuna) txertatu zitzaien Garapen Jasangarrirako Helburuei (GJH). Helburu horrek indartu egiten du nazioarteko komunitateak 2030a baino lehen emakumeen eta neskatuen aurkako diskriminazio- eta indarkeria-modu guztiak ezabatatzeko konpromisoa.

Europar, bereziki garrantzitsua da Istanbulgo¹⁶ Hitzarmena, 2011n onartua, emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa izatea aitortzen duen lehen ituna baita Europar. Hitzarmen horrek betebeharrak argiak ezartzen dizkie estatuei, bai delitu horiei aurrea hartze aldetik, bai eta, delituak izan eta gero, emakumeak babestu eta delitugileei zehapenak jartze aldetik ere. Espainiak 2011n berretsi zuen, baina 2014an jarri zen indarrean. Berresteak esan nahi du estatuak ere har daitezkeela –haien administrazio publikoen bidez– erantzulez, baldin eta genero-indarkeriako egoeretan behar bezala jarduten ez badute eta diskriminazio pandemiko hori desagerrarazteko neurririk bilatzen edo hartzen ez badute.

Garapen-aheluruetako erreferenteekin edo mugarriekin jarraituz, ezinbestekoa da hirugarren mugarri bat aipatzea: **Garapen Jasangarrirako Helburuen Agenda (GJH)**.¹⁷

Garapen Jasangarrirako Helburuen Agenda (GJH) –2030 Agenda ere esaten zaiona– Nazio Batuetako estatu kide guztiek 2015eko irailean onartutako ekintza globaleko plan bat da. Helburua da pobrezia desagerraraztea, planeta babestea eta, 2030erako, pertsona guztientzako oparotasuna bermatzea.

Agendaren zutabeak garapen jasangarriaren hiru dimentsio nagusitan oinarritzen dira: hazkunde ekonomiko, gizarteratzea eta ingurumena babestea. Dituen helburuak lortzeko, Garapen Jasangarrirako 17 Helburu (GJH) eta 169 xede espezifiktan egituratzen da agenda hori.



15 <https://www.un.org/es/conferences/women/beijing1995>

16 <https://rm.coe.int/1680464e73>

17 <https://www.undp.org/es/sustainable-development-goals>

Milurtekoaren Garapen Helburuen (MGH) aldean, beste urrats bat ematen du GJHen agendak. Garapen Jasangarrirako Helburuek (GJH) garapen integralaren ikuspegia eranstean diote jasangarritasunari, eta gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-dimentsioen arteko oreka sustatzen dute. Milurtekoaren Garapen Helburuek (MGH) oinarritzeko gizarte-hazkundera zuten oinarri. GJHek, ordea, ikuspegi zabalagoa eta zehatzagoa dute. Unibertsalak dira, eta horrek herrialde guztien konpromisoa eta ekintza izatea dakar, garapen bidean dauden herrialdeena bakarrik izan beharrean. Gainera, era askotako gaiak jorratzen dituzte, gaur egun diren erronka globalak ere hartuta: klima-aldaketa, genero-berdintasuna –zentzu zabalagoan–, desberdintasunak murriztea eta lan duina sustatzea, besteak beste. GJHek enfasi handia egiten diote ekitateari eta inklusioari ere, eta inor atzean ez uzteko konpromiso esplizitua egiten dute, barne-desberdintasunak hobeto ikusarazteko eta talde kalteberenei kasu egiteko modua ematen duten metrika batzuk erabilia.¹⁸

Alegia, aurrerapen esanguratsua direla GJHak MGHen aldean –bai anbizio, bai irismen aldetik ere–, eta ikuspegi unibertsal, inklusibo eta giza garapenerako jasangarri baten bidez sustatzen dutela lankidetzaren globala.

Hala ere, ezin da esan GJHak behin betiko irtenbidea direnik. Izan ere, haiek betetzeko jarritako epea osatzeko bost urte falta direla, urruti ematen du haiek betetzeko posibilitatea, batez ere munduan zer testuinguru den kontuan izanda. Garapen Jasangarrirako Helburuei egindako kritika nagusietako bat da, batzuetan, asmo oneko proposamen eta ekintzak direla, baina ez oso zehatzak. Epe espezifikoaren, adierazle neurgarrien eta konpromiso errealek bihurtuko dituzten mekanismoen bidez argiago definitzen ez badira, adierazpen sinboliko hutsak izateko arriskua dute GJHek, benetakoak izateko baino gehiago.

Azkenik, garrantzitsua da azpimarratzea Garapen Jasangarrirako Helburuak tresna bat gehiago direla, eta ez lortu beharreko helburu batzuk; Giza Garapen Jasangarriaren ikuspegiaren oinarritutako lankidetzaren bat garatu ahal izateko tresnak.

Garapen-agendaren nazioarteko parte hau amaitzeko, V. Plana idatzi bitartean amaitu zen ekitaldi bat ere aipatu behar dugu: Nazio Batuen Garapenerako Finantzaketari buruzko Nazioarteko IV. Konferentzia¹⁹, Sevillan izan zena, 2025eko ekainaren 30etik uztailaren 3ra bitartean.

Ekitaldi horretan munduko liderrak, finantza-erakundeak, erakunde aldeaniztunak, sektore pribatua, gizarte zibila eta Nazio Batuen sistema bildu ziren, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzeko eta nazioarteko finantza-arkitektura eraberritzeko behar den finantzaketaren premiazko erronkei aurre egiteko.

Munduko finantza-sistemaren arauak eraberritzeko, garapen jasangarri eta inklusiboaren finantzaketa ziurtatzeko eta nazioarteko lankidetzaren indartzeko garai erabakigarria izan zen konferentzia; desberdinkeriak, klima-aldaketak eta aldaketa ekonomiko azkarrak nagusi ziren testuinguru global batean. Ekitaldiak tokiko gobernuen eta gizarte zibilaren rol estrategikoa indartu zuen, XXI. mendeko erronketarako bidezko irtenbide eraginkorrak ezartzeko ezinbesteko eragileak diren aldetik horiek.

Estatuan hartutako konpromisoaren artean, nabarmentzekoa da 2030a baino lehen espainiar Estatua BPG-aren % 0,7a garapena finantzatzeko izatera iristeko konpromisoa.

18 <https://www.cepal.org/es/temas/objetivos-desarrollo-milenio-odm/objetivos-desarrollo-milenio>

19 <https://news.un.org/es/events/4a-conferencia-internacional-sobre-financiacion-para-el-desarrollo>

Garapen Agendaren bideari jarraituz, orain aurkeztuko ditugu –tokiko ikuspegi handiagoa izate aldera egiteko– Lankidetzarako, Elkartasunerako eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzarako V. Udal Plan hau hobeto ulertzeko funtsezko elementu batzuk.

Estatuan, Espainiak otsailaren 20ko **1/2023 Legea** onartu zuen, **Garapen Jasangarrirako Lankidetzari eta Elkartasun Globalari buruzkoa**, 1998ko legea ordeztu eta nazioarteko lankidetzarako Espainiako politika arautzen duena. Lege horrek Espainiako lankidetzaren egungo erronketara egokitzeko eta nazioarteko konpromisoekin lerrokatzeko beharrari erantzuten dio; besteak beste, 2030 Agendarekin, Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta Klima–aldaketari buruzko Parisko Akordioarekin lerrokatzeko.²⁰

Aurrerapen handia izan zen lankidetzaren eraldatzailearen, feministaren eta ekologikoaren aldeko konpromisoan. Hala ere, hura ezartzeko, lankidetzaren sistema deszentralizatua indartu behar da aurrera; eta sistema horretan, tokiko erakundeek –Donostiako Udalak, adibidez– funtsezko zeregin bat daukate.

Erkidego- eta toki–mailan, Euskadik ibilbide sendoa eta aitortua du lankidetzaren eta gizarte eraldaketarako hezkuntzaren arloan. Eusko Jaurlaritzak 2016an onartutako **Garapenerako Politiken Koherentziarako Euskal Erreferentzia Esparrua** (GPK) dokumentu orientatzailea izan zen, eta politiken koherentzia Euskadiko gobernuaren ekintzaren funtsezko printzipiotzat jarri zuen, bai barne–garapenerako estrategietarako, bai kanpo–proiektuak. Aitzindaria izan zen estatuan, mota horretako lehen esparru autonomikoa izan baitzen, eta abangoardian jarri zuen Euskadi garapenerako politiken koherentzia gobernu autonomikoetan integratze aldetik. Gainera, Garapen Jasangarrirako Helburuak sustatzearekin batera jarri zen abian, eta euskal politika garapen jasangarriaren arloko nazioarteko konpromisoekin lotu zuen. Nabarmentzekoa da, halaber, erakundeek, GGKEek eta adituek parte hartzen handia, adostasuna sortzeko eta esparruaren jabetze soziala eta politikoa sustatzeko.²¹

Azken batean, Garapenerako Politiken Koherentziarako Euskal Erreferentzia Esparrua (2016) erreferente aitzindaria da euskal politika publiko guztiak giza garapen jasangarriaren eta solidarioaren ikuspegiarekin harmonizatuz, nazioarteko estandarrak betetzen ditu eta gobernu–ekintzaren dimentsioen arteko artikulazio handiago baterantz egiten du. Eta, hala, Donostiako Udalaren plan berri honetan oso kontuan hartuko da.

Era berean, kontuan hartu behar da **Euskadiko Lankidetzari eta Elkartasunari buruzko 3/2024 Lege** berria, hura baita Eusko Legebiltzarrak 2024ko otsailaren 15ean onartutako araudia, nazioarteko lankidetzaren eta elkartasunaren arloko euskal politika publikoa arautzeko. Hark dituen lehentasunezko printzipioetan eta ikuspegietan, honako hauek nabarmentzen dira: giza eskubideen ikuspegia, ikuspegi feminista, tokikoa–globala, ekosoziala, lurralde–oinarriarena eta garapen jasangarrirako politiken koherentzia (GJPK).²²

Lege berriak esparru teknikoak birdefinitzea baino aurrerago doazen aldaketak bultzatzen ditu, eta euskal lankidetzaren eraldaketa kulturalak eta egiturazkoak egitea sustatzen du. Hala, gizarte eraldaketarako hezkuntza indartzea proposatzen du, desberdintasun globalaren aurrean herritar kritiko eta konprometituak sustatuz; partaidetza soziala

20 <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2023-4512>

21 https://www.elankidetzaren.euskadi.eus/contenidos/documentacion/publicaciones_cpd/es_def/adjuntos/Marco-Referencia-CPD-CAS.pdf

22 <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/02/2401067a.shtml>

eta instituzionala zabaltzea, eragile berrientzat irekita izatea eta printzipio solidarioen defentsa orekatuta; politika publikoen koherentzian aurrera egitea, sail guztien ekintza elkartasun- eta jasangarritasun-balioen ildoan sartuta; eta Hegoaldeko eragileekiko lankidetzak sakontzea, justizia globalean oinarritutako harreman horizontalak finkatuta, logika asistentzialistan ez baina.

Eta hori guztia Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren % 0,7 lankidetzak- eta elkartasun-politika bideratzeko konpromisoarekin, aurrez ikusteko moduko finantzaketa-horizonte egonkor bat sendotuta.

Nazioarteko, estatuko naiz erkidegoko garapen-agendak osatzen dituzten elementuek eta mugarriek ematen dituzten ideiek eta ikaskuntzek aukera emango dute Udalaren IV. Planak ezarritako ildoari jarraipena emateko, Giza Garapen Jasangarriaren ikuspegia eta Udalaren politiken koherentzia indartzen jarraitu ahal izateko, Plan berriaren funtsezko osagaiak baitira horiek.



5

Zein da esparrua
eta nora goaz?



5 Zein da esparrua eta nora goaz?

Aurreko planaren ebaluazioa egitekoan eta oraingoa diseinatzeko egindako partaidetza- eta kontsulta-prozesuan agerian geratu den bezala, aurreko planaren ildoari jarraitzeko eskaera argia dago. Bereziki, egiturari, zeharkako printzipioei eta interes bereziko eremuei dagokienez. Plan hark ere proposatzen zuen printzipio eta zehar-lerroen atalak bateratzea, eta interes bereziko eremuena indartzea. Bi ardatz horiei esker, ikuspegia funtsezko bi gakoren inguruan definitu ahal izan zen: lankidetzaren politika osoa zeharka bideratu behar zuten ideiak eta ekintzen eragina eta gaitasun eraldatzailea maximizatzeko ardatz izango ziren eremu estrategikoak.

Jarraipen hori finkatu egingo da orain, V. Plan honen bidez; neurri batean inplikaturako eragileek esparru eta ikuspegi egokitzat jotzen dutelako. Baina baita nazioarteko, estatuko eta autonomia-erkidegoetako garapen-agendekin bat datorrelako ere. Gainera, aurreko planak aurrekoen aldean aldaketa esanguratsuak ekarri zituen, haren indarraldia ez zen nahikoa izan aurreikusitakoa erabat garatzeko.

Horregatik guztiatik, plan berri honen helburua da, besteak beste, eginkizun geratu ziren alderdietan sakontzea. Ildo kontinuitate eusten badiu ere, badiu aldaketa eta berrikuntza batzuk ere, testuinguru berrira egokitzeko eta IV. Planaren ebaluazioan identifikaturako beharrei erantzuteko modua ematen dutenak.

Egiturari eutsi eta atal hauek planteaturako ditugu orain: Planaren helburu orokorra, zeharkako printzipioak, interes-arloak eta parte hartuko duten eragileak/aktoreak.

■ 5.1 Helburu orokorra

V. Plan honen helburua da pobrezia eta desberdintasunen egiturazko kausak desagerrarazten laguntzen jarraitzea, bai eta gizartea eraldatzeko prozesuak bultzatzea ere. Hori guztia giza garapen jasangarriaren ikuspegitik, giza eskubideetan, elkartasunean, genero-ekitatean eta gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunean oinarrituta. Helburu horiek lortzeko, herrialde pobretuetan, hegoalde globalean, naiz gure ingurune hurbilenean, ipar globalean, egin beharreko ekintza batzuk planteatzen ditu, mundu bidezkoago, ekitatiboago, solidarioago eta bizigarriago baterantz egiteko.

■ 5.2 Zeharkako printzipioak

Funtsezko ardatz gisa funtzionatzen duten printzipioak dira, edozein esku-hartze edo strategiaren plangintza, ekintza eta ebaluazioa bideratzen dutenak, eta Plan honen etapa eta arlo guztietan koherentzia eta funtsezko balioak txertatuta izatea bermatu.

Bestela esanda, zeharkako printzipioek Donostiako Udalaren lankidetzarako politika definitzen dute, eta jarrita diren ikuspegietatik eratutako ekintzen helburuak eta ezarpena lortzea bideratzen duten erreferente gisa jarduten dute.



5.2.1 Giza garapen jasagarria

Esan daiteke Giza Garapen Jasagarriaren (GGJ) ikuspegi badagoela garapen-agendetan, eta, pixkanaka-pixkanaka, sendotzen ari dela, nahiz eta oraindik badagoen zerefina franko, Plan honen Testuingurua eta Garapen-agenda ataletan ikusi ahal izan dugun bezala.

Baina kontzeptu askorekin gertatzen den bezala, ezinbestekoa da jakitea zertaz ari garen Giza Garapen Jasagarriaren ikuspegiarekin eta haren aplikazioak duen garrantziarekin hitz egiten dugunean.

GGJaren ikuspegi hau pertsonen bizi-kalitatea hobetzea bilatzen duen esparru integrala da; gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-ongizatea sustatu, baina etorkizuneko belaunaldiak planetaren baliabide eta osasunik gabe geratzeko arriskuan jarri gabe. Azkeneko urteotan, giza garapen jasagarriaren kontzeptuak gero eta garrantzi handiagoa hartu du; erronka globalak (klima-aldaketa, gizarte-desberdintasuna eta krisi sanitario edo ekonomikoak, adibidez) aurrera eta urgenteagoak diren testuinguru honetan.

Esparru horrek zalantzan jartzen ditu garapen-eredu hegemonikoaren funtsezko postulatu batzuk. Baztertu egiten du garapena esparru ekonomikora bakarrik mugatzen dela, eta, bereziki, hazkunde kapitalista mugagabearen oinarritutako aurrerapen-ikuspegira. Gainera, egungo ereduari ingurumen aldetik ez dagoela eusterik nabarmentzen du, gogorarazten baitu planetak badituela muga fisiko batzuk, derrigor kontuan hartu behar direnak. Ondorioz, ohartarazten du eredu hori ezin dela herrialde guztietan berdin errepikatu.


Dena dela, hizpide dugun termino horrek ez du definizio bat bera izan hasiera-hasieratik gaur egun arte; eboluzionatu eta egokitu egin da, testuinguruaren arabera. Orain darabilgun ikuspegi hau Brundtland (1987) txostenaren bidez formalizatu zen. Honela definitu zuen hark garapen jasagarria: "egungo beharrak asetzen dituen, etorkizuneko belaunaldiek beren beharrak asetzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe". Ondoren, NBEren Garapen Jasagarriko Helburuen (GJH) bidez, finkatu egin zen terminoa esanahi horrekin. Helburu horiek helburu zehatz batzuk jartzen dituzte pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko, berdintasuna bermatzeko eta garapena dimentsio guztietan sustatzeko 2030era arte.²³

V. Udal Plan honetan IV. Planean hartutako definizioari eutsi diogu. Helburua Donostiako Udalak orain arte egindako lanari jarraipena eman eta, aldi berean, Eusko Jaurlaritzarekin eta Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin bat etorri eta ildo berean joatea da.

Alde batetik, bereziki Giza Garapen Jasangarriaren (GGJ) aldeko apustuan eutsi dio plan honek Eusko Jaurlaritzarekiko sintoniari. Izan ere, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearen (3/2024 Legea) bidez sustatu du Jaurlaritzak apustu hori, legearen artikuluen eta nazioarteko lankidetzaren arloko EAEko politika publikoaren erdigunean jarrita GGJa. Printzipio hori, gainera, funtsezkoa da Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko lankidetzarekin eta elkartasunarekin lotutako erakundeen ekintza eta estrategia guztietan.

Bestalde, bat gatz Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ikuspegiarekin ere; Udalak bezalaxe definitzen baitu hark ere Giza Garapen Jasangarria, haren lana bideratzen duten hainbat dokumentutan ikus daitekeen bezala.²⁴

Alde horretatik, V. Planak berretsi egiten du Giza Garapen Jasangarriaren ikuspegiarekiko konpromisoa, funtsezko hiru zutabetan oinarrituta: jasangarritasun ekologikoa, ekitatea eta eskubide aldetik ahalduntzea.



Hiru osagaien arteko erlazioa funtsezkoa da. Giza garapen jasangarria ez da posible izango ekitatearen, iraunkortasun ekologikoaren eta eskubide aldetik ahalduntzearen arteko elkarreragin orekaturik gabe. Batek aurrera egitea beste bietan aurrera egitearen mende izango da.

Iraunkortasun ekologikoa.

Planeta bat besterik ez daukagu. Printzipio horrek planetaren mugak errespetatzea eta zaintzea eskatzen du, eta horrek ekosistemak eta baliabide naturalak babestea dakar, gaur egungo erabilerak etorkizuneko belaunaldien aukerak arriskuan ez jartzea bermatuta. Era berean, jardunbide arduratsuak (energia berriztagarriak erabiltzea, adibidez), ekonomia zirkularra eta isuri kutsatzaileak murriztea ere sustatzen du.

Iraunkortasun ekologikoa zeharka txertatu behar da politika eta ekintza guztietan – baita lankidetzakoetan ere–, eta ingurumena hondatzeak biztanleria osoari eragiten diola aitortu behar da, baina, bereziki, talde kalteberenei eragiten diola, gizarte–, ekonomia– eta

24 Bi dokumentu hauetan kontsulta daiteke: <https://www.ongdeuskadi.org/documentos-marco/> y <https://www.ongdeuskadi.org/publicacion/analisis-coherencia-politicas-enfoque-desarrollo-humano-sostenible/>

lurralde-desberdintasunak betikotu egiten ditu eta.

Ingurumena ekitate-ikuspeirik gabe babesten bada, oinarriko eskubideak urratzeko arriskua dago; sakondu egiten delako egiturazko desberdintasunetan, eta murriztu pertsonak (berezi bazterketa-egoera handieneko egoeran daudenek) baliabide naturaletarako, bizi-baldintza duinetarako eta beren lurraldeei eta bizimoduei eragiten dieten erabakietan benetan parte-hartzeko modua izatea.

Ondorioz, V. Udal Plan honen esparruan garatzen diren lankidetzak eta GEHko ekimen guztiek ingurumena errespetatzen dela bermatu behar dute, ezartzen diren lurraldeen jasangarritasunarekiko erantzukidetasuna hartu behar dute beren gain, eta planetaren defentsaren aldeko jardunbideetan eta jarreretan eraldaketak sustatu behar dituzte.

Ekitatea

Desberdintasunak murriztu eta baliabideak eta aukerak zuzentasunez eskuratzeko modua bermatuta ekitate handiagoa sustatzen duten gizarteek baldintza hobek izaten dituzte emaitza jasangarriagoak lortzeko, nola ingurumenaren aldetik, hala bai gizartearen aldetik; parte-hartze inklusiboagoa, ondasun komunak kudeaketa bidezkoagoa eta ongizate komunarekiko konpromiso kolektiboa indartzen duen gizarte-kohesioa sustatzen dituzte-eta.

Funtsezkoa da desberdintasunak (pluralean) ulertzea, hau da, desberdintasunak dituzten dimentsio anitzak ezagutzea eta aztertzea ikuspegi intersektorialetik. Bestela, desberdintasunak desagerrarazteko funtsezkoak diren faktore oinarri-oinarrikoak (sexu- eta genero-aniztasuna, kolonialismoa, arrazakeria eta abar) alde batera uzteko arriskua dugu. Fernando Altamirak planteatzen duen bezala, eredu nagusia hiru buruko triada gisa uler daiteke: neoliberala, etnozentrikoa eta zisheteronormatiboa. Konfigurazio horrek sakonki zeharkatzen ditu pertsonak eta komunitateak aurre egin beharreko zapalketak, eta ezinezkoa da gertatzen ari dena ulertzea edo aztertzea buru edo dimentsio horietako bat ere aipatzen ez bada.²⁵

Testuinguru horretan, Plan honetan ekitateaz hitz egiteak esan nahi du inklusioa, bidezko tratua izatea eta baldintza berdinetan parte hartzea bermatzeko moduko egiturak eta prozesuak diseinatzea. Horrela bakarrik eraiki ahal izango da lankidetzak esanguratsu, jasangarri eta erresilientea, batez ere desberdintasunak modu zuzenagoan pairatzen dituzten pertsona eta kolektiboentzat.

Genero-ikuspegiak, aurreko planean bezala, ezinbesteko zeregina izango du V. Plan honetan ere. Besteak beste, garapenerako eta lankidetzarako eredu benetan ekitatibo baterantz aldatzeko, nahitaezkoa delako genero-ikuspegia zeharka txertatzea gai hauetan, besteak beste: zaintza-lanak birbanatzea, soldata-arrakalak ixtea, emakumeek gure gizartearen eremu guztietan autonomia eta parte-hartzea eraginkortasunez sustatzea eta abar. Baina, batez ere, emakumeen aurkako indarkeria estruktural modu guztiak desagerrarazteko.

Zeregin unibertsala da, gainera. Izan ere, ez dira testuinguru eta egoera batzuk bakarrik; ez dago gizarterik, besteak beste bere egitura politiko, sozial, kultural, ekonomiko edo erlijiosoetan genero-desberdintasuna errotuta ez duenik.

25 <https://medicmundibizkaia.org/wp-content/uploads/2022/05/Los-silencios-Medicusmundi-cast.pdf>

Hori dela eta, Plan honek –eta baita aurrekoak ere–, berretsi egiten du nahitaez txertatu behar dela genero-ikuspegia garatzen diren ekimenen fase guztietan (plangintzan, egikaritzean, ezartzean eta ebaluatzean). Eta inplikaturako erakundeen praktikan eta barne-egituretan ere txertatuta izan behar du ikuspegi horrek. Proiektu bakoitzak genero-analisi batean oinarritu behar du, eta bere helburuen artean sartu behar du identifikaturako desberdintasunak gainditzea, bai eta pertsona guztientzako gizarte bidezkoagoak eta ekitatiboagoak sustatzea ere, aniztasunak dituen modu guztiak aitortu eta errespetatuta. Aniztasun horrek sexu- eta genero-aniztasuna ere barne hartzen du, LGTBIQ+ pertsonen dagokienez.

Eskubide aldetik ahalduntzea.

Eskubide aldetik ahalduntzeak esan nahi du pertsonen eta komunitateen giza eskubideak erreklamatzeko, baliatzeko eta defendatzeko dituzten gaitasunak indartzea, eskubide horiek bermatzeko erantzukizuna dutenen aurrean. Laguntzen onuradun edo parte-hartzaile pasibo huts ez baina, eraldaketako subjektu aktibo direla aitortzea esan nahi du. Prozesu hori funtsezkoa da garapen jasangarri eta iraunkor baterantz egiteko; izan ere, lortu nahi den ongizate motari buruzko kontzientzia indibiduala eta kolektiboa hartzea sustatzen du, ikuspegi kritiko, askotariko eta testuinguruan kokaturako batetik.

Kontua ez da laguntza materiala ematea bakarrik, baizik eta pertsonen autonomia, konfiantza, lidergoa eta protagonismoa sustatzea, bereziki kalteberatasun handieneko egoeretan daudenena, beren bizitzetan eta komunitateetan aldaketa positiboak eragin ditzaten.

Ahalduntzearen kontzeptuan eskubideen ikuspegia txertatzeak haien ekintza giza eskubideen nazioarteko arau-esparruetan finkatzea dakar. Ikuspegi hori oinarritzeko printzipio batzuen bidez zehazten da; hala nola baita unibertsaltasuna, eskubideen zatiezintasuna, berdintasuna, diskriminaziorik eza, parte-hartze aktiboa eta kontuak ematea. Horietatik abiatuta, desberdintasun- eta bazterketa-modu anitzen aurrean gizarte inklusiboagoak, demokratikoagoak eta erresilienteagoak izatea bultzatzen da. Horrek betebeharrak zehatz bat ezartzen die estatuei eta betebeharren beste titular batzuei, eta, haiek, kontuak eman behar dituzte giza eskubideak benetan betetzen direla eta pertsona guztiek eskubide horiek erabat baliatzen dituztela bermatzeko.

Ikuspegi horren elementu nagusietako bat pertsonak eskubideen titular izatea aitortzea da, zerbitzu hartzaile pasibo ez baina. Horrek berekin dakar erabakiak hartzeko, aldaketak eskatzeko eta beren bizitzari eragiten dieten prozesuetan aktiboki parte hartzeko gaitasuna sendotzea, batez ere diskriminazioa edo ekitaterik ez den testuinguruetan. Gainera, irtenbideak formulatzekoan ere parte-hartze zabala eta esanguratsua izatea sustatzen da, historikoki baztertuta izan diren taldeetan batik bat.

Hori bereziki garrantzitsua da emakumeentzat, sistema patriarkalean oraindik diren mendekotasun- eta bazterketa-egoerak direla eta, eta baita kalteberatasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat ere. Aldi berean, betebeharren titularrei, pertsonen zein erakundeei, giza eskubideen arloan dituzten erantzukizunak eraginkortasunez betetzeko eskatu behar zaie.

Eskubideen ikuspegiak gaitasun indibidualak eta komunitarioak ere sendotu nahi ditu, eskubideak erabat baliatzea zailtzen duten egiturak aztertzeke, zalantzan jartzeko eta eraldatzeko izan behar direnak; desberdinkeria-, menderatze- edo egiturazko indarkeria-sistemak, esate baterako.

Udalaren V. Plan honetako ekimen guztiak eskubideen ikuspegitik formulatu behar dira, segurtatuta hegoalde globalean antolatutako komunitateek berek zehaztutako lehentasunei erantzuten dietela. Ezinbestekoa da ekimen horiek harreman horizontaletan garatzea, laguntza solidarioan eta berdinen arteko aliantzetan oinarrituta, komunitate horien prozesuak errazteko eta indartzeko, kanpoko logiketatik ordeztu edo zuzendu gabe.

5.2.2 Elkartasuna, erantzukidetasuna eta munduko/tokiko ikuspuntua.

Zeharkako bigarren printzipioaren aurreneko terminoa **Elkartasuna** da. Termino hori inolaz ere ezin da banandu lankidetzaren eta gizarte eraldaketarako hezkuntzaren eremutik.

V. Plan honetan, balio eta gizarte-jarrera bat da elkartasuna; pertsonak, taldeak eta komunitateak elkarri, laguntzea, lankidetzan jardutea eta batzea sustatzen dituen, egoera zailak izaten direnean edo helburu komunak lortu nahi direnean. Elkarrekin jardutea esan nahi du, kolektiboaren hobe beharra izatea aurrena –kalteberatasun handienean direnena bereziki–, norberaren hobe beharra baino lehenago. Alde horretatik, elkartasuna eta justizia soziala zuzen-zuzenean lotuta daude.

Garapenerako lankidetzan, oinarrizko printzipioa eta funtsezko eragilea da elkartasuna, gizarte bidezkoago, ekitatiboago eta erresilienteagoetarantz egin ahal izateko. Ezinbesteko tresna da mugak gainditzen dituzten erronka globalei aurre egiteko (pobrezia, egiturazko desberdintasunak, klima-aldaketa eta krisi humanitarioak, konparazio baterako).

Elkartasuna, beraz, balio etikoa ez ezik, lankidetzako esparru politikoa ere bada, garapen jasagarria eta pobrezia-forma guztiak desagerraraztea lortzeko konpromiso kolektiboa eta erantzukizun partekatua bultzatzen dituena.

Egungo testuingurua kontuan hartuta, V. Udal Plan honek berariaz txertatu du *elkartasuna* terminoa bere izenean, eta, horrela, harreman horizontaletan, elkarrekiko laguntzan eta justizia globalean oinarritutako lankidetzarekiko konpromisoa islatzen du. Horrenbestez, Planaren izen osoa honela izango da: Donostiako Udalaren Lankidetzarako, Elkartasunerako eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzarako V. Plana (2026–2029).

Zeharkako bigarren printzipio hori **erantzukidetasunak eta ikuspegi lokal/globalak** ere osatzen dute.

Egungo sisteman jasagarritasun eza, desberdintasunak eta indarkeriak dira nagusi, eta hori eraldatzea zeregin kolektiboa eta saihetsezina da. Ez da munduaren hegoaldeko herrialdeen arazoa bakarrik: nagusi den garapen-eredu nagusi hau da –ipar globalak bultzatu eta indarrean den globalizazio logikak eutsia– krisi horien benetako jatorria. Elkarrekiko mendekotasun globala gero eta garbiago ikusten da, eta baita erronka komunei aurre egiteko premia ere, lankidetzaren, lan artikulatuaren eta aliantza sendoak eginda.

Errealitate horren konplexutasuna ulertzeko, sakon aztertu behar dira orain diren pribilegioak, erantzukizun desberdinak eta batera eraiki ditzakegun estrategiak. Ezinbestekoa da atzean uztea Iparraldearen eta Hegoaldearen artean banatutako munduaren ikuspegi

sinplista; eta lurralde guztietako kausak, ondorioak eta alternatibak identifikatuko dituen ikuspegia hartu behar dugu, lurraldeen kokapen geografikoari begiratu gabe.

Herritar kritiko eta kontzienteak sustatu behar dira, gai izango direnak aitortzeko gutako bakoitzak eta egunero egiten ditugun ekintza horiek betikotu egiten dituztela munduan diren desberdintasunak. Herritar ahaldunduak eraiki behar dira, aurreko zeharkako irizpidean aipatu den bezala. Ezinbestekoa izango da tokikoa indartzea eraldaketa-motor gisa, lurralde jasangarri, erresiliente eta bizigarriak bultzatuz, bai ipar globalean, bai hegoalde globalean. Hori bai, prozesu globalekin duen lotura ahaztu gabe. Funtsezkoa da lehendik den alternatiba mordo handi hori artikulatzea, haien arteko sareak eraikitzea eta haien ahalmen eraldatzailea ikusaraztea.

Tokikoa eta globala uztartzen dituen ikuspegia duten politikak eduki, hartu eta aurrera eramateak, izan ere, Garapenerako Lankidetzak, Ekintza Humanarioa eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza bereizten dituzten eskema zatikatuak hausteko modua ematen du. Ikuspegi horrek harreman horizontalak sustatzeko bidea ematen du, elkarrenganako errespetutik eta ikaskuntza partekatutik abiatuta.

Udal-plan honek eragiten duen toki-eremuan, beharrezkoa da Donostiako herritarrak aktiboki inplikatzeko. Horretarako, kontsumo-ohituretan eta gizarte eraldaketan eragiteaz gain, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzarako ekintza batzuk ere egin beharra izango da, gogoeta, justiziarekiko konpromisoa, giza eskubideak, jasangarritasuna eta genero-ekitatea sustatuko dituztenak.

Bestalde, lankidetzako politika publikoen diseinuan eta jarraipenean zuzenean parte hartzea ere funtsezko elementua izango da. Alde horretatik, Lankidetzak Kontseilua eta horrelako espazioak funtsezkoak dira herritarren inplikazioa bideratzeko, baina administrazioaren erantzukizuna ere bada gizartearen proposamen eta eskaerekiko jarrera irekia eta harkorra izatea.

Horrenbestez, elkartasunean, erantzukidetasunean eta tokikoa eta mundukoa artikulatzean oinarritutako bigarren zeharkako printzipio honek udal-plan honetan jasotako ekintza-ildo guzti-guztietan eragin behar die. Benetan aplikatzen direla bermatzeko, beharrezkoak diren tresnak jarriko dira eskura, bai administrazioan bertan erabiltzeko, bai inplementatzeko behar dituztenei eskaintzeko.

5.2.3 Koherentzia eta kalitatea.

Akzio publikoen sail-banaketa aldatzen jarraitu behar da, eta Udalaren antolaketa-kultura bera aldatu. Plan berri honetan azaltzen denak erakunde osorako zeharkakoa izan behar du. Neurri batean, oso lotuta dago arlo edo sail batek egiten duenak gainerakoei eragiten dielako ideiarekin. Horrela, udal-politika publikoak elkarren artean kontraesanean egotea saihesten dugu, eta irizpide berberen aldeko lan-sinergiak sortzea sustatzen dugu.

Koherentziaren printzipioa da aurreko Planean eginkizun geratutako zereginetako bat –gutxien garatu ahal izan zen gaitako bat izan zelako–, eta Plan honen bidez printzipio horretan sakontzen jarraituko dugu, lortzen saiatzeko. Badakigu zer zailtasun duen horrek, hori lortzea ez baitago Lankidetzak den sailaren mende bakarrik, baizik eta erakunde osoaren eta haren antolamendu-kulturaren mende ere bai.

Horretarako, Lankidetzaren eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza politika indartsua eta eragiteko gauza dena eduki behar da. Izan ere, horrela bermatu ahal izango baita udal-politika guztiek giza garapen jasangarriaren ikuspegia (GGJ) txertatuta izatea, bai eta zeregin horretarako izan behar diren baliabideak ere.

Azken batean, koherentziak berekin dakar politikak, ekintzak eta tresnak harmonizatzea eta koordinatzea, bai lankidetzaren beraren barruan (barne-koherentzia), bai lankidetzaren eta beste politika publiko batzuen artean (kanpo-koherentzia), haien inpaktua maximizatzeko eta beste eragile batzuen garapenari kalte egiteko moduko kontraesanak saihesteko. Politiken koherentzia funtsezko elementua da Udalean diren arlo guztiek sustatu nahi den garapen-ereduari –giza garapena eta garapen jasangarria– zerbait gehitzeko, kendu ez baina. Horregatik, beste irizpide bat bezala txertatu behar da garapenerako lankidetzako udal-programa, –proiektu eta –planen ebaluazioan, dagoeneko finkatuta dauden beste batzuen (egokitasuna, eraginkortasuna, efizientzia, inpaktua eta jasangarritasuna, adibidez) maila berean.

Kalitatea, berriz, eraginkortasunari eta kontuak emateari lotuta egon ohi da lankidetzan. Udalaren lehentasunei erantzungo dieten esku-hartzeak planifikatu eta kudeatzea izaten da –tokiko eragileen parte-hartzea sustatuz–, emaitzak gardentasunez ebaluatzea eta jasotako ikasgaiak eta etengabeko hobekuntzak txertatzea. Lankidetzarako udal-plan kalitatezko batek giza baliabide profesionalizatuak ere izan behar ditu, eta baita arau-esparru bat ere, prozedurak sinplifikatu eta bikaintasun profesionala sustatzeko modukoa, eta hala ari da egiten Donostiako Udala.

Erakunde publikoa denez, Lankidetzako udal-arloak beti modu ireki, garden eta parte-hartzailean jarduteko erantzukizuna du. Herritarrei dagozkien baliabide ekonomikoen kudeaketak funts horiek –bai zuzenean bai zeharka administratzen direnak– kalitatez eta eraginkortasunez erabiltzeko konpromiso irmoa izatea eskatzen du.

Funtsezkoa da herritarrek garbi jakitea udal-aurrekontuarekin zer lankidetzaren-ekintza egiten diren. Horretarako, datuak eguneratuta eta eskuragarri izan behar dira, Udalak arlo horretan egiten duen ekarpena ebaluatu eta gainbegiratu ahal izateko. Gardentasuna ezin da une puntual batzuetara bakarrik mugatu egon; politika publikoaren ekinaldi guztien parte izan behar du, plangintzatik hasi eta ebaluaziora arte, exekuziotik eta emaitzen komunikaziotik igarota. Alde horretatik, ezinbestekoa da informazio- eta komunikazio-kanal onak izatea inplikaturako eragileekin, baina baita herritarrekin ere.

Laburbilduz, lankidetzaren eraginkorrak eskatzen duena da lerrokatuta egotea politikak (koherentzia) eta kudeaketa, emaitza eta estandar tekniko handietara bideratutako kudeaketa (kalitatea), V. Planean planteatutako erronkei inpaktu eta iraunkortasun handiagoarekin lagundu ahal izateko.


Beraz, Plan honek printzipio horiek zeharka eta jarduketa eta tresna guztietan ezartzen jarraitu behar du, helburua dela ikasten jarraitzea eta etorkizunean ere errepikatze moduko praktikak sortzea.

5.3 Interes bereziko eremuak

Interes bereziko eremuei buruzko atal honen helburua da V. Planaren barruan estrategikotzat jotzen diren eremuak zedarritzea. Eremu horiek inpaktu handiagoa sortzeko duten garrantziagatik eta potentzialagatik identifikatu dira, eta aurreko blokean definitutako zeharkako printzipioekin bat etorriz garatu beharko dira beti, planteatutako ekintzak eraginkorrak eta inpaktudunak izatea bermatzeko.

Jarraian zehaztuko diren eremuak ez dira Donostiako lankidetzaren sektoreko eragileen eremuetatik kanpora geratzen; lan-ibilbide luzea egin dute eremu horietan eragile horiek-eta. Lehenetsun orok beste gai garrantzitsu batzuk kanpoan uztea badakar ere, V. Plan honek aurreko planaren segida eguneratua izan dezan saiatu gara, Udalaren eta Donostiako lankidetzaren sektorearen helburu eta printzipio nagusiekin bat eginda.

Interes bereziko arlo horiek erreferentzia-esparruak izango dira Udalak, zuzeneko zein zeharkako lankidetzaren bidez, lankidetzaren eta gizarte eraldaketarako hezkuntzaren arloan bultzatutako jardueretarako. Esku hartzeko erabilgarri diren tresna guztietan (dirulaguntza lerroan, adibidez), arlo horiek argi eta garbi definituta eta Planaren helburu estrategikoekin lerrokatuta egon behar dute.



5.3.1 Giza Eskubideak defendatzea eta sustatzea

Gizakiak, pertsonak, Donostiako Udalak egiten dituen politika, ekimen, proposamen edo programa guztien erdigunean izan behar du. Hau da, eskubideen ikuspegia izan behar du. Horrela, ahalduntzeak, eskubide aldetik, esan nahi du pertsonak eta komunitateek giza eskubideak erreklamatzeko, baliatzeko eta defendatzeko dituzten gaitasunak indartzea.

Giza Eskubideez ari garenean, haien belaunaldi guztiez ari gara. Izan ere, tradizionalki, hiru talde handitan sailkatu dira: lehenik, eskubide zibil eta politikoak; bigarrenik, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak; eta, azkenik, hirugarren belaunaldiko eskubideak, elkartasun-eskubideak ere esaten zaienak. Garapenerako, bakerako edo ingurumen osasuntsurako eskubideak sartzen dira azkeneko eskubide horietan. Gaur egun, zenbait egilek laugarren eskubide-belaunaldi bat proposatzen du, teknologia eta globalizazioak planteatzen dituzten erronkak direla-eta; teknologien eskuragarritasun

eta erabilera ekitatiboa, datu pertsonalen babesa eta herritartasun digitala, adibidez. Hala ere, azken sailkapen eztabaidatzen ari dira akademikoak eta oraindik ez dago adostasun orokorrik.

Giza eskubideen defentsa eta sustapena funtsezko zutabeak dira gizarte aske, bidezko eta demokratikoak garatzeko. Hori betetzea erakundeen eta herritarren erantzukizuna da, eta oinarri-oinarrizkoa da pertsona guztien duintasuna eta eskubideak bermatzeko, bereziki kolektibo zaurgarriena; adibidez,

Emakumeak. Emakumeen eskubideen eta genero-berdintasunaren sustapena funtsezkoa da Donostiako lankidetzan. Emakumeek –batez ere, baina ez emakumeek bakarrik– diskriminazio eta indarkeria estruktural mota askori egin behar diete aurre pobretutako edo gatazkek eragindako testuinguruetan, eta horrek zaildu egiten du oinarrizko eskubideak (parte-hartze politikoa, osasuna, hezkuntza eta autonomia ekonomikoa, esate baterako) benetan baliatzea. Bizitza duina izateko eskubideari kalte egiten zaio, azken batean. Hala, ezinbestekoa da, emakumeen ahalduntzea sustatzeaz gain, desberdintasuna betikotzen duten egiturak eraldatzeko moduko ekimenak bultzatzea, eskubideak benetan izatea bermatzeko.

LGTBIQ+ populazioa. LGTBIQ+ pertsonak estigmatizatu, kriminalizatu eta indarkeriaz hartzen dituzte oraindik ere munduko leku askotan, eta horrek larriki urratzen ditu haien oinarrizko eskubideak. LGTBIQ+-fobia eskubide horien aurka doa. opulazio horren giza eskubideen alde lan egiteko, ezinbestekoa da sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia zeharka txertatzea.

Defendatzaileak. Giza Eskubideak defendatzen dituztenek (aktibistak, lider komunitarioak, antolakundeak, kazetariak, erakundeak edo erakundeen ordezkariak, adibidez), zeregin erabakigarria dute gizartea eraldatzeko eta gizarte bidezkoagoak eraikitzeko. Hala ere, haien lanak, askotan, arrisku handiak dakartza, baita hiltzea ere, bereziki haien jarduera kriminalizatzen edo adierazpen- eta elkartze-askatasuna murrizten den testuinguruetan, eta gertatu ere hala ari da gertatzen testuinguru batzuetan.

Haurtzaroa. Haurrak eta nerabeak erabat errespetatu eta bermatu behar diren eskubideen titularrak dira. Pobrezia-, gatazka- edo bazterketa-testuinguruetan, haurrak bereziki kalteberak dira indarkeria, esplotazioa, lan eginaraztea, desnutrizioa eta kalitatezko hezkuntza ezin izatea nozitzeko. Neskatoak eta nerabeak, bereziki, genero-osagaia dela-eta. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa oraindik ere tresna erabilgarria da biztanleria horren eskubide ekonomiko, sozial, kultural, zibil eta politikoak landu ahal izateko.²⁶

Migratzaileak eta errefuxiatuak. Migratzaileek, desplazatuek edo errefuxiatuek eskubide urraketa askori egin behar diote aurre beren ibilbideetan eta helmugetan: oinarrizko zerbitzuetarako sarbiderik ez izatea, xenofobia, prekarietatea, indarkeria instituzionala eta baita denik urraketarik handiena ere, bizitzeko eskubidea bera urratzea. Gainera, migrazioa eragiten duten arrazoiak oso lotuta daude lankidetzak landu nahi izaten dituen gaiekin: gerrak, interes geopolitikoak/estraktibistak eta abar.

Hori dela eta, giza eskubideak defendatzeko, sustatzeko eta indartzeko ekimenak bultzatu eta babestuko ditugu arlo honetan. Ahalduntze indibiduala eta kolektiboa funtsezkoa izango da diren desberdintasunei buruzko kontzientzia sortzeko. Ahalduntze hori

lortzeko, beharrezkoa izango da maila guztietan –tokikoan zein globalean– prestakuntza, ikerketa eta salaketa jartzea, Giza Eskubideen defentsan eta sustapenean eragin politiko eraginkorra izateko.

5.3.2 Parte-hartzea eta tokiko/munduko ikuspegia sendotzea

Udalaren esperientziak eta ibilbideak erakutsi digu –lankidetzan eta GGKEekin, erakundeekin eta instituzioekin lankidetzan urte askoan lan egin ondoren– inplikaturako eragileen arteko interakzioa beharrezkoa ez ezik ezinbestekoa ere badela gizarte solidarioagoak, bidezkoagoak eta ekitatiboagoak eraikitzeko.

Interakzio edo harreman horrek, gutxienez, funtsezko bi osagai izan behar ditu: parte-hartzea eta ikuspegi lokala/globala. Helburu nagusietako bat giza garapen jasangarrirantz egitea da, eta horrek esan nahi du pertsonak eta herriak eraldaketa-subjektu aktibo bihurtzea, parte-hartzearen bidez. Hala, funtsezkoa izango da gizabanakoak, kolektiboak eta komunitateak prozesu, programa eta politiketan aktiboki inplikatzea –batez ere talde eta pertsona diskriminatuenak–, lankidetzan benetan parte-hartzailea bultzatzeko. Horretarako, ezinbestekoa izango da biztanleria onuradunaren kontzeptua birdefinitzen jarraitzea –besteak beste, eraldatzeko gaitasuna duen subjektu aktibo gisa–, haren interes eta premia estrategikoak ekimen, programa edo proposamenetan ager daitezten.

V. Plan honen hainbat ataletan adierazi dugun bezala, testuinguruak eta errealitateak aldatzen ari dira etengabe. Horrez gain, aurrera eta erlazio handiagoa dago tokikoaren eta globalaren artean, eta horrek oraindik eta garrantzia handiagoa ematen dio ikuspegi hori txertatzeari. Ez da munduko hegoaldearen eta iparraldearen arteko harreman kontua bakarrik, baizik eta hegoaldean eta iparraldean bertan sortzen diren dinamika kontua ere bada.

Horregatik, ikuspegi lokal/global horretatik jakintzak, praktikak, ezagutzak eta esperientziak trukatzeko aldera egiten diren sareak eta aliantzek dinamika bertikalak hausten eta harreman horizontalagoak sustatzen laguntzen dute. Harreman horiek, aintzakotzat hartzen dituzte, leku bat ematen diete eta balioetsi egiten dituzte hegoalde globalaren ikuspegiak; historikoki ikusezin bihurtu, diskriminatu edota gutxietsi egin izan baitira ikuspegi horiek, bai beren testuinguruetan, bai eta iparralde globalekoetan ere.

Hori dela eta, interes bereziko eremu honetan, sareak eta aliantzak sortzea sustatzeko moduko prozesuak eta ekimenak babestu eta bultzatuko ditugu, bai eta herritarren parte-hartze aktiboa ere, haien eraldaketaren subjektu protagonista izanik, beren premia eta interes estrategikoei eraginkortasunez erantzuteko.

5.3.3 Emakumeen ahalduntzea eta genero-ekitatea sustatzea.

Donostiako Udalak urteak daramatza emakumeak ahalduntzeko prozesuak eta genero-ekitatearen aldeko lana sustatzearen alde egiten. Funtsezko kontzeptuak dira, eta osagarriak, egitura sozialak, politikoak eta ekonomikoak eraldatu eta pertsona guztien giza eskubideak bermatzeko. Emakumeak ahalduntzea eta genero-ekitatea bermatzea ez da justizia soziala bakarrik; izan ere, pertsonen bizitza hobetzen ere laguntzen du, eta, ondorioz, baita gure gizarte osoa ere. Gaur egun, desberdintasunen ondorio txarrenak pairatzen jarraitzen dutenak, oro har, eta genero-arrazoiengatik bereziki, emakumeak dira.

Emakumeak ahalduntzeak esan nahi du emakumeek beren bizitzen gaineko kontrol handiagoa izatea; baliabideak, hezkuntza, enplegua eta erabakiak hartzeko prozesuetan –bai maila komunitarioan, bai politikoan– parte hartzeko modua izanda. Ahalduntze horrek handitu egiten du bizitza ekonomikoan, sozialean eta politikoan bete-betean parte hartzeko gaitasuna, eta baliabide materialak (lurra, kreditua eta enplegua) eta funtsezko zerbitzuak eskuratzea sustatzen du. Era berean, ahalduntzeak autokonfiantza eta politika publikoetan eta komunitarioetan eragiteko gaitasuna ere sustatzen ditu, gaitasunak garatu eta lidergoa indartuta; bereziki, kalteberatasun-egoeran diren emakumeen artean: landa-inguruneetan edo genero-indarkeriak eragindako testuinguruetan, adibidez.

Genero-ekitatea printzipio bat da, emakumeei eta gizonei aukera eta eskubide berberak aitortu eta bermatu, eta diskriminazio mota oro ezabatzen dizkiena. Emakumeei, neurritz kanpo, eragiten dieten desberdintasun estrukturalak, legalak, sozialak, ekonomikoak, politikoak, kulturalak eta abar zuzentzea dakar. Baina baita hezkuntza, osasuna, enplegua eta parte-hartze politikoa izateko aukera berberak izatea ziurtatzea, eta egiten duten ordaindu gabeko zaintza-lana aitortzea eta baloratzea ere; politika eta programetan genero-ikuspegia zeharka txertatuta horretarako.

Interes bereziko eremu honetan, genero-desberdintasunei heltzekoan derrigorrez aipatu behar dira botere-harremanak. Hainbeste desberdintasun sortzen dituzten botere-harreman horiek sakon errotuta daude sistema patriarkalari esker, eta gizonek emakumeen aldean dituzten pribilegioetan eta menderatzean oinarritzen dira. Horregatik, funtsezkoa da ez bakarrik botere-harremanen ondorioez hitz egitea, baita maskulinitate hegemonikoaz eta, oro har, maskulinitateez ere.

Azkeneko urteotan, garrantzia handiagoa hartu du genero-ekitateari gizonei eta maskulinitateei dagokienez heltzeak. Eskuratutako ikaskuntzen artean, nabarmentzekoa da emakumeen ahalduntzea bezain ezinbestekoa dela gizonekin lan egin beharra emakumeen eta gizonen arteko ekitatearen eta berdintasunaren inguruan, gizonak prozesu horietan aktiboki inplikatzeko sustatuz. Baina hori guztia ikuspegi feministatik egin behar da, sexu- eta genero-aniztasuna txertatuta ikuspegi horretan.

Lan horretan guztian, inplikaturako eragileek zeregin erabakigarria dute. Aitortzen da garrantzitsua dela lankidetzari lotutako eragileen barne-lanean aurrera egitea, hala nola antolakundeetan, erakundeetan (udala bera barne), egiturak, antolatzeko moduak eta prozesuak sustatu eta, hartara, haietan diren pertsona guztien arteko ekitatea bermatzeko. Horretarako, behar-beharrezkoa da antolakundeen eta erakundeen funtzionamendua eraldatzeko tresnak izatea, desberdinkeriarik eta indarkeriarik ez izateko berriz, eta antolaketa-kultura horizontalagoak, ekitatiboagoak eta inklusiboagoak eraikitzen laguntzeko.

Donostiako Udalak, interes bereziko eremu horretan, genero-berdintasunaren alde lan egiten du, eta konpromisoa berresten du, bai hegoalde globaleko testuinguruetan, bai gure errealitate hurbilenean, indarkeria matxista modu guztiei aurre egitera bideratzen diren ekimenak babesteko, emakumeen gaitasunak eta ahalduntze ekonomiko, sozial eta politikoa indartzeko eta haien sexu- eta ugalketa-eskubideak sustatzeko. Era berean, funtsezkotzat jotzen da pribilegio maskulinoen berrikuspen kritikoa, maskulinitate hegemonikoa desagerraraztean eta justizia sozialaren aldeko maskulinitate berdinzale, ekitatibo, konprometitu eta aktiboak sustatzean oinarritutako proposamenak bultzatzea.

5.3.4 Jasangarritasun ekologikoa eta soziala bultzatzea

Klima-krisi bati aurre egiten ari gara, eta dagoeneko oso ondorio larriak izaten ari da pertsonen bizitzetan, giza garapen jasangarriari (GGJ) ikaragarriko oztopoa egiten dio eta. Frogatuta dago egungo sistemari ez dagoela eusterik, eta, beraz, beharrezkoa da beste ekoizpen- eta kontsumo-eredu batzuk sortzen jarraitzea. Muga fisiko batzuk ditugure planetak.

Udalak bultzatzen dituen proiektuetan, estrategietan eta politiketan ingurumena errespetatzeko irizpideak eta gizarte-ekitatea txertatzea ekarri behar du jasangarritasun ekologiko eta sozialak. Ingurune naturala errespetu eta sozialki bidezkoa izatea, biak, uztartuko dituen garapena bermatzea da helburua; egungo ingurumen errespetua, elkartasuna, zaintza eta erabilera ziurtatu eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea arriskuan jarri gabe.

Horretarako, ekitate, lan duin, jasangarritasun ekologiko eta aberastasunaren banaketa bidezkoa izateko irizpideak funtsezkoak dira gizarte bidezkoagoa eta orekatuagoa eraikitzeko. Diren baliabideak eta aukerak pertsona guztien artean zuzen banatzea dakar ekitateak, eta lan duinak, berriz, lan-baldintza bidezkoak eta seguruak sustatzen ditu. Jasangarritasun ekologikoak natura-baliabideen erabilera arduratsua bilatzen du, planeta bere onera ekartzeko diren mugak errespetatuz. Azkenik, aberastasunaren banaketa bidezkoak desberdintasun ekonomikoak murriztea eta Giza Garapen Jasangarriaren onurak ekitatiboki eskuratzeko bidea bermatzea dakar.

Jasangarritasun ekologiko eta sozialak egungo jardunbideen eraldaketa sakona eskatzen du, eta justizia soziala eta ingurumenarekiko errespetua politiken eta ekintzen erdigunean jartzea. Horretarako, tokian tokitik jardun behar da, ekitate eta elkartasun globala sustatu behar da, eta esku-hartze batzuk diseinatu behar dira ekosistemak babesteko eta gizarte-sarea indartzeko, politiken koherentzia-printzipioa gida dela. Elikadura-subiranotasunak, ekonomia sozial eta solidarioak edo bidezko merkataritzak, besteak beste, kontsumo-alternatiba zehatz eta jasangarri batzuk eskaintzen dituzte, sustatu eta indartu egin behar direnak, eta horiek kontuan hartzeko konpromisoa hartzen du Udalak.

Donostiako Udalaren zeregina funtsezkoa da balio horiek erosketa eta zerbitzu publikoak kontratatzeko politiketan txertatzeko. Donostiak egunero hartzen dituen erabakietan eta praktketan erreferente bihurtzeko izan behar diren baliabide eta mekanismo guztiak aktibatzeko konpromiso instituzionala.

Horregatik guztiagatik, Udalak babesa emango die ezagutza, pentsamendu kritikoa eta kontsumo- eta ekoizpen-ohitura arduratsuak sustatzen dituzten ekimenei, eta eredu etiko, ekologiko eta solidarioak sustatuko ditu, bai eta finantza etikoak erabiltzea ere. Donostiako herritarrei konpromiso hori eredu bidezkoago batekin gauzatzeko tresna zehatz batzuk eskainiko dizkieten proposamenak babesteko dira: banku etikoa, bidezko merkataritzako dendak, ekonomia sozial eta solidarioko ekimenak, tokiko kontsumo taldeak eta proiektu agroekologikoak, konparazio baterako. Hori guztia jasangarritasun ekologiko eta sozial baterantz egiteko helburuarekin.

5.3.5. Hizkuntzen berdintasuna eta hizkuntzen aniztasuna sustatzea

Hego globaleko herrialdeetako herritarren giza eskubideak sustatzea da Udalaren lankidetzaren politikaren oinarri nagusietako bat eta, testuinguru horretan, garrantzitsuak dira hizkuntza eskubideak.


Izan ere, hizkuntza ez da komunikazio tresna hutsa. Hizkuntza identitatearen, kulturaren eta memoria kolektiboaren adierazpide nagusietako bat da. Pertsonen duintasuna eta komunitateen biziraupena estuki lotuta daude hizkuntzarekin. Gaur egun, munduko hizkuntzen zati handi bat desagertzeko mehatxua gero eta handiagoa da, munduko 7.000 hizkuntza ingururen %94, biztanleriaren %6k soilik hitz egiten du, eta hizkuntzen eta hiztunen arteko desplazamendu- eta erresistentzia-prozesuak fenomeno ia unibertsalak dira.

Munduan estatu berean hizkuntza asko elkarrekin bizi da da egoerarik ohikoena beraz, nahiz eta estatu askok hizkuntza ofizial bakarra onartu eta gainerako hizkuntza eta hiztun-komunitateak minorizazio egoera behartu. Hizkuntza horiek ez dira aitortzen gizarte esparru ezberdinetan (administrazioan, hezkuntza sistematan...) eta egoera horrek desabantaila sozial eta ekonomikoak sortzen ditu komunitate horietako hiztunentzat. Horregatik, hizkuntza eskubideak oinarriko giza eskubideen parte dira, banakakoak zein kolektiboak, eta giza duintasunaren eta hizkuntza guztien berdintasun formalaren printzipio unibertsalean oinarritzen dira.

Zentzu horretan, UNESCOk hizkuntza-aniztasuna babestea eta hizkuntza minorizatuen garapen jasangarria bermatzea gizateriaren erronka nagusietako bat dela deritza eta Udalak ere bat egiten du ikuspegi eta helburu horrekin.

5.4 Agenteak

Lankidetzarako V. Udal Planaren puntu honetan, plan hau gauzatzeko beharrezkotzat jotzen diren eta aurreko planaren ildo beretik jarraitzen duten eragileak aipatzen dira.



Plan honen eragile nagusia **Udala** bera da, eta Lankidetzaren Arloa da plana abian jartzearen arduraduna.

Zeharkako printzipioetako bat –koherentiaren printzipioa– kontuan hartuta, Udal osoa da ezartzen dituen politika guztietan Giza Garapen Jasangarriaren ikuspegia txertatzeko erantzukidetasuna bere gain hartzen duena. Hori guztia, jakitun izanik zaila dela funtzionamendu-dinamika jakin batzuk apurtzea eta eraldatzea. Izan ere, dinamika horiek lotura estua dute arloka banatzeko erakunde-kulturarekin, eta, beraz, horrek eragin egiten dio erakundeko sailak erlazionatzeko moduari ere.

Aurreko Planean ere hasi ziren bide horretan urrats batzuk ematen, eta V. Plan honetan ere, Udaleko arlo gehiago inplikatu, eta aurrera egiten jarraituko dugu, GGJa zeharkako gaia izan dadin.

Inplikaturako eragileak aipatzen hasita, aipa ditzagun Udalaren aliatu handiak eta bidaia-lagunak izan eta, bai hegoalde globalean, bai iparralde globalean, Udalarekin batera gizarte bidezkoagoak, bidezkoagoak eta demokratikoagoak eraikitzen eskuz-esku jardun duten eragileak. **Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeez (GGKE)** ari gara.

GGKEen parte-hartzerik gabe, Plan honek ez luke zentzurik izango. Donostian egoitza duten erakundeak izan dira, neurri handi batean, bultzatu den eta Donostiak indartzen jarraitu nahi duen lankidetzaren eredu zehazten lagundu duten eragileak, aktiboki parte-hartuta, eztabaidatuta, ezagutza eskainita eta proposamenak eginda; ikuspegi, jardueraren sektore eta ibilbide askotatik egin ere.

GGKE horietako gehienak Donostian zainak emanda daude, ibilbide luze baten ondorioz, eta horri esker, gizarte eraldaketarako hezkuntzarekin lotutako ekintzek pisu espezifiko eta eragin esanguratsua izan dute Donostiaren lankidetzan.

Puntu honetara iritsita, egoki da, eta zuzen, hegoalde globaleko kide diren erakundeei aitortza egitea, bai zuzeneko lankidetzaren bidez lan egiten dutenei, bai eta Donostiako GGKEen aliatu estrategikoak direnei ere. Ezin dugu ahaztu Giza Garapen Jasangarriaren funtsezko printzipioetako bat dela lankidetzan aritzen diren aktoreek eta biztanleek beren garapenaren protagonista izan behar dutela. Ikuspegi horrek, gainera, harreman horizontalak eraikitze bidea ematen du, eta, harreman klase horietan, bi noranzkoetan transmititzen dira ezagutzak eta esperientziak, eta, horrela, elkarren arteko lankidetzaren eta ikaskuntza-prozesuak aberastu egiten dira.

Ondoren, garrantzitsua da beste **administrazio publiko batzuk** ere eragile gisa aipatzea. Haiekin lankidetzan aritzea, partekatzea eta sinergiak sortzea funtsezkoa da Udalak sustatu eta finkatu nahi duen politiken koherentzia-printzipioan.

Lankidetzaren horrek garrantzia berezia du sustatu nahi den lankidetzaren ereduari buruzko ikuspegiak eta irizpideak lerrokatzeko bidea ematen duen esparru partekatu bat denean. Horren adibide azpimarragarria da Donostiako Udalak Euskal Fondoan parte hartzea; hainbat udalerrik beren ahaleginak eta baliabideak proiektu komun batzuk babesteko batzen baitituzte han, egiten diren ekintzen eragina eta eraginkortasuna handitzeko, besteak beste. eLankidetzarekin ere handitu da interakzioa; eta Plan honetan handitzen segitzea espero dugu bi erakundearen arteko lankidetzaren, erakundearen arteko koordinazioaren bidez.

Plan hau indarrean izango den aldirako planteatzen den erronketako bat lurralde historiko bereko funtsezko erakunde batekiko interakzioa areagotzea izango da; izan ere, hainbat arrazoi direla-eta, orain arte ez da lankidetzaren esanguratsurik garatu erakunde horrekin: Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Aurrerago jasotzen den bezala, Apustu Estrategikoen eta horien Ekintza Ildearen atalean bada erronka garrantzitsu bat bi erakundearen artean egiteko Plan hau aurrera eramatekoan.

Hori dela eta, datozen urteetan aktiboki lan egingo da erakundearen arteko elkarrizketarako, koordinaziorako eta lankidetzarako guneak indartzen.

Azkenik, baina ez atzenik, **beste eragile batzuk** ere aipatu behar ditugu. Plataformek eta sareek paper handia jokatzen dute hiriko elkarte-sarean ez eze, baita politika publiko honetan ere; izan ere, Plan honetan jarritako printzipioekin bat, ahaleginak elkartasun-agendaren funtsezko alderdietan kontzentratzeko modua eman eta askotariko eragilearen arteko baterako lana egiteko bidea jartzen dute.

Donostiako Udalarentzat oso inportantea da eskala, profesionalizazio maila eta esku-hartze arlo bateko baino gehiagotako erakundearen artean sustatzea lankidetzaren jarduna, aberastasuntzat eta Donostiak bultzatzen duen lankidetzarako balio erantsitatzat hartzen baitugu guk aniztasun hori.

Alde horretatik, kolektibo eta erakunde ugari ari gara aitortzen gizarte eraldaketarako funtsezko eragile eta, beraz, Plan honen erreferente estrategiko. Horien artean dira mugimendu feminista eta emakumeen erakundeak; LGTBIQ+ mugimendua eta ekonomia sozialarekin, solidarioarekin eta elikadura-subiranotasunarekin konprometitutako erakundeak. Eta baita pertsona migratuen erakundeak eta kalteberatasun-egoeran diren biztanleekin lan egiten duten kolektiboak ere. Ahaztu gabe, halaber, hezkuntza-eremu formaleko eta informaleko erakundeak, gizarte-mugimenduak eta mundu bidezkoagoa eta solidarioagoa eraikitzea helburu duten irabazi-asmorik gabeko beste kolektibo batzuk.



6

Planaren tresnak




6 Planaren tresnak

V. Lankidetzaren Plana ondo ezartzeko, funtsezkoa da zenbait tresna izatea, eta argi eta garbi jakitea zeintzuk ditugun gure eskura. Hala, alde batetik, jarduketaren modalitateak jorratuko dira, eta, bestetik, dokumentuaren ondorengo ataletan aurreikusitako ekintzak aurrera eramateko modua emango duten tresnak.

Era berean, Plana garatzeko funtsezko beste tresna batzuk ere ingurutuko ditugu (parte hartzeko guneak, jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak eta, azkenik, eskura diren baliabideak, adibidez), datozen urteetarako aurreikusitako ekimenak egingo direla bermatzeko ezinbesteko elementuak dira eta.

6.1 Jarduketa-modalitateak



Garapenerako Lankidetzaren Tresna

V. Lankidetzaren Plan honen bidez, hegoalde globaleko herrialdeetako bizi-baldintzak, ekitatea, justizia soziala eta giza garapen jasangarria hobetzen lagundu nahi dugu, GGKEei eta haien erakunde aliatuei lagunduz haiek aritzen diren herrialdeetan. Lan hori Plan hau arautzen duten printzipioekin bat datozen proiektu eta programen bidez egingo da. Horiek aurrera eramateko, hurrengo ataletan (2. puntua) adierazitako tresnak erabiliko dira. Plan honek kontuan dauka garapenerako lankidetzaren tresna estrategikoa eta operatiboa dela nazioarteko elkartasuna zehazteko eta hegoalde globalean garapen bidezkoago, ekitatiboago eta jasangarriago baterantz egiteko.

Gizarte eraldaketarako hezkuntza (GEH)

V. Plan honetan, gizarte eraldaketarako hezkuntza da ikuspegi bat, etengabeko bilakaeran den tresna bat, helburu nagusia duena pentsamendu kritikoa sortzea eta pertsona aktibo, arduratsu eta kontzienteak prestatzea, gizarte bidezkoago, jasangarriago eta solidarioago bat eraikitzen laguntzeko gauza izateko modukoak.

Gizarte eraldaketarako hezkuntzak funtsezko elementu batzuk ditu oinarri, aldaketa sakona eginarazi nahi dietenak bai pertsonari eta bai gizarteari. Lehenik eta behin, pentsamendu kritikoa sustatzen du; *statu quo*a zalantzan jartzera eta inguruan dituen arazo sozial, politiko, ekonomiko eta ingurumenekoak ondo hausnartuz aztertzea eraginda

pertsoneri. Era berean, ahalduntzea eta herritartasun aktiboa bultzatzen ditu; prozesu sozial eta politikoetan parte-hartze indibiduala eta kolektiboa sustatzeko, eragin politikoaren bidez, egitura bidegabeak eraldatu ahal izateko.

Eta justizia, ekitatea, jasangarritasuna, elkartasuna, demokrazia eta giza eskubideak eta ingurumena errespetatzea ere gizarte eraldaketarako hezkuntzaren oinarritzko balioak dira. Tokiko dimentsioa eta dimentsio globala ditu; hurbileko erronkak erronka globalekin lotu eta mundu bidezkoago bat eraikitzeke herritarren erantzukidetasuna sustatzen du-eta. Ikuspegi politikoa eta emantzipatzailea du, eta sistema kapitalistei, patriarkalei eta kolonialei aurre egiteko eta eraldatzeko tresna du ikaskuntza. Azkenik, malgutasuna eta bizitzak dituen testuinguru eta etapetara egokitzeko gaitasuna du ezaugarri, hezkuntza formaletik hasi eta espazio ez-formal eta informaletaraino.

Gizarte eraldaketarako hezkuntzaren ekintzak sensibilizazioaren, ikerketaren, komunikazioaren eta eragin politikoaren bidez bultzatu daitezke. Baina, horretarako, ezinbestekoa izango da beste eragile batzuk inplikatzeko: gizarte-mugimenduak, hezkuntza-komunitatea eta ekonomia sozial eta solidarioan inplikaturako eragileak, esate baterako. Gainera, garapenerako lankidetzarekin gertatzen den bezala, ekintza eta programa horiek hurrengo ataleko 2. puntuan adierazitako tresnen bidez garatu ahal izango dira.

Ekintza humanitarioa

Donostiako Udalak ez ditu ahazten populazio kalteberenak edo kalteberen bihurtutakoak. Eredu honetan bideratutako ekintzen helburua da bizitzak babestea eta salbatzea, sufrimendua arintzea eta oinarritzko premiei erantzutea, larrialdi humanitarioak izaten direnean; bai hondamendi naturalek, gatazka armatuek edo zigorgabeko krimenek eragindako larrialdiak (Israelgo gobernuaren Palestinako herriarekin egiten ari den genozidioa, adibidez). Egoera horri gehitu behar zaio herrialde batzuek lankidetzara eta, bereziki, ekintza humanitariora, bideratutako funtsen eta baliabideak murriztea eta baita, zenbaitetan, erabat ezabatzea ere.

Horiek horrela direla, Udalak segi egingo du ekintza humanitariora bideratutako ekarpen bat egiten urtean, konpromiso irmo batekin: bizitzak salbatzea, sufrimendua arintzea, biktimen eskubideak babestea eta haien duintasuna bermatzea. Hala ere, V. Plan honen ezarpenean, beste urrats bat eman nahi da esku-hartze modalitate hori hobetzeko. Alde horretatik, Gipuzkoako Larrialdietarako Funtsa sortzeko modua izatea bultzatuko du Donostiako Udalak; larrialdi humanitarioei erantzuteko tresna arin eta eraginkorra izatea dela helburu nagusia.

Funts hori beste erakunde batzuen ahaleginak artikulatzen ere saiatuko da – Gipuzkoako Foru Aldundiarena eta lurraldeko beste udalerrri batzuen –, eta erakundeen arteko koordinazioa –ezinbesteko gauza– indartzen horrela. Orain arte, udalen ekarpena GGKEei eta Nazio Batuen elkarte eta erakundeei zuzeneko laguntza emanez bideratu da, betiere Lankidetzarako Udal Kontseiluarekin adostutako irizpideetan oinarrituta. Hala ere, Gipuzkoako Larrialdietarako Funts berria sortzeak Udalak populazio kalteberenekin duen konpromisoa indartu eta sendotzeko modua emango du.

Plana abian jarritakoan hainbat etapa egingo dira. Aurrena, galdetu egingo diegu GFARI eta Gipuzkoako beste erakunde batzuei funtsa sortzea zer iruditzen zaien. Funtsa

sortzearen bideragarritasuna aztertu eta aurrera egitea erabakiz gero, hurrena eman beharreko urratsak definituko dira. Besteak beste, urrats hauek: funtsak ekintza humanitario osoa edo larrialdiko esku-hartzeak bakarrik hartuko dituen zehaztea, nor hartuko duen funtsaren lidergoa, zein izango den haren zuzkidura ekonomikoa, eta abar. Prozesu horren abantaila handi bat Arabako esperientzia da; izan ere, Araban badago horren antzeko funts bat, erreferentzia edo gida izateko balio dezakeena.

Ekintza humanitarioa ezinbestekoa den bezala, ezinbestekoa da donostiarrentzako sentsibilizazio- eta kontzientziazio-ekimenak ere egitea harekin batera. Ekimen horiek helburu hau izan behar dute: krisi humanitarioen sustrai eta kausa sakonak ezagutaraztea, eta haien ulermen kritikoa eta solidarioa sustatzea.

Udalaren koherentzia eta eragina


Gipuzkoako Larrialdietarako Funtsa sortzea bultzatzeaz esan dugun eran, Udal honen konpromiso behinenetako bat gizarte garapen jasangarriaren koherentzian sakontzen jarraitzea da, erakundearen beraren barruan. Koherentzia eta erantzukidetasun hori bi norabidetan bideratu behar da: kanpoaldera, Udalak politika publikoen eta zerbitzuen kudeatzaile den aldetik daukan eginkizunean; eta, barrualdera, kontsumitzaile instituzional eta baliabide publikoen administratzaile den aldetik daukan erantzukizuna bere gain hartuta. Horrela bakarrik egin ahal izango da justizia sozialarekin, ekitatearekin eta jasangarritasun globalarekin benetan konprometitutako eredu baterantz.

Alde horretatik, funtsezkoa da Udalak erosketa eta kontratazio publikoen arloan jokatzeko duen papera nabarmentzea. Alderdi administratiboa ez ezik, funtsezko tresna ere bada garapen jasangarriaren eta giza eskubideen printzipioekin koherentea den eraldaketa sustatzeko. Horregatik, erosketa eta kontratazio horiek etikoak eta arduratsuak izan behar dute, eta Udalean jarrita diren jarraibideak aplikatzen segitu, irizpide sozialak, etikoak, ingurumenekoak, lanekoak eta berdintasunekoak sartzea eskatzen baitute jarraibide horiek. Horrela, indartu egiten da erakundeek kudeaketa publiko zuzen eta gardenaren aldeko konpromisoa izatea.

Zeregin horrek dakartzan zailtasunen jakitun izanik, eta Plan honen aurreko ataletan ere adierazi dugun arren, aurrera ere funtsezko zeregina bete beharko du Lankidetzaren Sailak esku-hartze modalitate horri lotutako ekintzen sustapena eta jarraipena egitekoan. Horretarako, lana errazago egiteko moduko tresna batzuk eman beharko zaizkio: azterlanak, prestakuntza-prozesuak, esperientzien sistematizazioa, ebaluazioak, elkarrizketarako eta ordezkaritza instituzionalerako lekuak, besteak beste. Tresna horiei esker, sendoagoa eta koordinatuago egin ahal izango da plan honek defendatzen dituen printzipioekin eta balioekin koherentea eta konprometitua den kudeaketa baterantz.

6.2 Tresnak

Puntu honetan, Donostiako Udalak dituen bi tresnei buruz hitz egingo dugu.



6.2.1 Dirulaguntza deialdi publikoa

Urteko deialdiak aurreko planetan bezala jarraituko du oraingoa ere, eta hori izango da gizarte-oinarria hirian izan eta inskribatuta ere Donostian diren GGKEak finantzatzeko modua, haiek aurkeztu eta onartzen diren proiektuak aurrera eraman ahal izateko. Horretarako, deialdian parte hartzeko baldintzak bete behar dituzte erakunde horiek. Ez dugu ahaztu behar GGKEak izan direla, direla eta izango direla Udalak hirian dituen solaskide nagusiak lankidetzak gaiterako.

V. Plan honen helburua deialdiaren egonkortasunari eustea da, beti urteko garai berean argitaratuta, erakundeek beren plangintza errazago egiteko modua izan dezaten. Era berean, aurreko deialdietan aplikatutako aurrekontu-banaketa izango da hemendik aurrera ere: % 70 lankidetzak-proiektuetarako eta % 30 Gizarte eraldaketarako Hezkuntzako (GEH) ekimenetarako.

Plan berria aurrera eraman bitartean, baliteke deialdiak aldaketa batzuk izatea; baina, betiere, prozesua hobetzeko badira eta erakundeek egin behar dituzten administrazio-izapideak sinplifikatzeko konpromisoari eusten badiote.

Udalaren ustez, garapen-proiektuak epe ertain-luzeko prozesu baten parte dira. Ez dira ekintza soltetzat hartu behar, baizik eta egonkortasun-logika baten barruan sartu behar dira; eta logika horrek, lan egiten den eta esku hartzen den errealitatea ezagutzea eta beste alderdiekiko harremana luzea, iraunkorra eta egonkorra izatea eskatzen du.

Udalaren lankidetzan izaten den ondorio nahi gabeko bat proiektu txikiak, loturarik gabeak eta denboran jarraipenik gabeak sortzeko joera izatea da; proiektuen ezaugarriak, diru kopuru txikia edota erakunde batzuen kudeaketa-gaitasuna dela eta. Heldu diote egoera horri bai Udalak bai erakundeek, eta proiektu isolatuentzako baino segida izaten duten prozesuentzako laguntza handiagoa izatea ekarri du, balorazio handiagoa emanda prozesu horiei deialdietan.

Egoera ideala urte anitzeko proiektuentzako deialdi bat jarri ahal izatea da, eta V. Plan hau aurrera eraman bitartean, helburu horretarantz egiteko modua ekarriko duten bideak aztertzen jarraitzea izango litzateke egokiena. Bitartean, epe ertain eta luzeko ikuspegia duten prozesuak babesten jarraituko du Udalak, bai eta betekizunak aurkeztekoan egin behar diren izapide administratiboak sinplifikatzea sustatzen ere, ahal izanez gero eta bete behar diren estandarrak betetz gero eta, betiere, onartzen diren proiektuen eta ekintzen kalitatea murriztu gabe.

Udalaren lankidetzan identifikatutako arriskuak direla eta, bereziki garrantzitsua da gizarte eraldaketarako hezkuntzako proiektuak partzuergoan aurkez daitezela sustatzea. Modalitate horrek, izan ere, eraginkorragoak izateko eta hirian diren beste entitate, sare eta mugimendu sozial batzuekin sinergiak sortzeko modua ematen die erakundeei. Horregatik, eutsi egingo diogu partzuergoan aurkeztutako proposamenei deialdian puntuazio handiagoa emateko politikari.

Era berean, Udalak Ekintza Humanitarioarekin duen konpromisoa ere indartu egingo da V. Plan honetan. Lehen aipatu dugun bezala, helburu da planaren indarraldia amaitutakoan larrialdietarako funts bat izatea Gipuzkoak. Donostiak partaidetza nabarmena izango du, lurraldeko beste erakunde batzuekin batera, funts hori sortzeko orduan. Funts hori abian jartzeak ez du hura eratu bitartean ekintza humanitaria bideratuta den dirulaguntza lerroa kentzerik ekarriko.

Larrialdi humanitarioak ekintza humanitarioaren parte direnez, eta berehala eta koordinatuta erantzutea eskatzen dutenez, iruditzen zaigu komenigarria dela tresna berri hori sortzeko posibilitatea aztertzea. Gainera, ekimen horri esker, lurraldeko erakundeek ahaleginak batu ahal izango dituzte, eta egiten dituzten ekintzak eraginkorragoak eta efizienteagoak izateko modua jarri.

Azkenik, atal hau ixteko, beharrezkoa iruditzen zaigu jarraipen-mekanismoak hobetzen jarraitzea V. Plana indarrean den bitartean. Hobekuntza hori partekatu egin behar dute bai Udalak –eskura diren tresnen bidez–, bai erakundeek ere, bereziki onartutako proiektuen justifikazioa egitekoan.

6.2.2 Udalaren zuzeneko lankidetzak

Tresna honek, lankidetzak zuzeneko hitzarmenak eta Lankidetzak arloak zuzenean antolatutako gizarte eraldaketarako hezkuntza-ekimenak (GEH) biltzen ditu. Lankidetzak politikara bideratutako aurrekontu osoaren zatirik handiena ez bada ere, tresna horri esker, neurri batean, aurreko planetan jasotako jarduketak ardatzetako batzuk garatu ahal izan dira.

Era berean, tresna horrek asko lagundu dio Udalari donostiar erantzukide eta solidarioak eraikitzeke funtsezko eragile den aldetik jokatzeko duen rolean aurrera egiten ere. Aurreko planean, estrategikotzat jotako ardatz bati funts batzuk esleitzeko modua eman zuen udalaren zuzeneko lankidetzak: politiken koherentzia eta hura sustatzeko tresnak sortzeari, hain zuzen. Eta ardatz horretan sakontzen jarraitu beharko dugu plan berri hau aurrera eramatekoan ere.

V. Plan honen bidez, azken urteetan garatzen ari diren lanei eta hitzarmenei jarraipena emango zaie, baina lan berri batzuk ere izango dira udalaren zuzeneko lankidetzan:

- Euskal Fondoan parte hartzea. Udalaren V. Planaren zeharkako printzipioekin bat datozen proiektuetan parte hartuz eta lagunduz.
- Euskadiko GGKEen Koordinakundea. Donostiako egoitzarako laguntza ematen jarraitzea.
- Saharar eta Palestinar herriak. Aurrera segitzea, eta oraindik eta gehiago gaur egungo testuinguruan, Udalak saharar eta palestinarrei naiz errefuxiatu edo lekualdatutako herriei laguntzen daraman ibilbide luzean.
- Donostia Mundu Artean. Udalak zuzenean egiten dituen gizarte eraldaketarako hezkuntza-ekimenak eta programa bultzatzen jarraitzea.

- Oporrak Bakean. Programari jarraitzea.
- Bidezko merkataritza eta kontsumo kontzientea eta arduratsua bultzatzen jarraitzea.
- Gipuzkoako Larrialdietarako Funtsa: Nabarmentzeko moduko berrikuntza nagusietako bat V. Plana ezarri bitartean Gipuzkoako Larrialdietarako Funtsa sortzeko posibilitatea da. Tresna horren helburua larrialdi-egoeretako jarduerak mekanismo komun baten bidez bideratzea da, erantzuteko gaitasuna indartzeko eta funtsa osatzen duten erakundeen artean ekintza koordinatuagoa eta eraginkorragoa egitea bermatzeko.

Amaitzeko, beharrezkoa iruditzen zaigu udalaren zuzeneko lankidetzaren jarraipen-mekanismoak sortzea eta/edo indartzea datozen urteetan. Ez fiskalizazio-kontu bategatik bakarrik –funts publikoak izanik derrigorra baita hori–, baita ezagutza handiagoa sortzeko eta lankidetzaren modalitate horren kalitatea eta inpaktua hobetzen laguntzeko moduko ikaskuntzak ateratzeko ere. Horretarako, sistematizazioena tresna ona izan daiteke.

■ 6.3 Parte hartzeko guneak

Donostiako Udalarentzat, eta bereziki Lankidetzaren Sailarentzat, herritarren parte-hartzea funtsezko zutabea izan da lankidetzaren politikaren hasiera-hasieratik. Bereziki garrantzitsua izan da lankidetzaren eta gizarte eraldaketarako hezkuntzaren esparruarekin lotutako erakundeen inplikazio aktiboa, eremu horretako udal-politiken diseinua ez eze, ezarpena ere aberastu baititu haien ekarpenak.

Kanpora begira, orain arteko konpromisoa, eta baita oraingoa ere, herritar kritikoak, eraikitzaileak eta politikan eragiteko gaitasuna dutenak sustatzea da, bai eta gizarte bidezkoago eta solidarioago baten alde lan egiten duen antolaketa-sarea indartzea ere. GGKEek funtsezko zeregina egin dute, eta egiten dute, ez elkarrizketarako eta kontsultarako guneetan parte hartuta bakarrik, baita Udalarekin sarean lan eginda ere. Eta azpimarratzekoa da Udalak hainbat sare eta plataformatan parte hartzea ere.

Era berean, erakundeen arteko koordinazioak leku garrantzitsua du estrategia honetan. Udalak, Lankidetzaren Arloaren bidez, aktiboki parte hartzen du lurraldeko, autonomia-erkidegoko, estatuko eta nazioarteko beste erakunde batzuekin batera egiten diren lankidetzaren dinamiketan.

Bestalde, V. Plan honek, aurrekoek bezala, parte-hartzea eta interakzioa Udalaren beraren barruan ere izan behar direla aitortzen du. Udaleko sailen eta arloen arteko koordinazioa funtsezko elementua da, batez ere politiken koherentziaren eta kalitatearen zeharkako ardatzarentzat, Plan honen erronka handienetako bat baita hori. Ondorioz, Udal osoa V. Planaren ikuspegia bereganatzen eta ezartzen inplika dadin saiatuko gara.

Alde horretatik, urrats handiak egin dira batez ere gure arloaren kidekoak izan daitezkeen arloekin (Berdintasuna, Aniztasuna eta Kultura, adibidez), eta, hala, lan batzuk haiekin egin ahal izan ditugu, lankidetzaren eta elkartasun printzipioetan hurbil ziren gai batzuk izanik. Hala ere, erronka handia da oraindik lankidetzaren hori itxuraz lankidetzatik urrun direla ematen duten beste arlo batzuetara ere zabaltzea. Baina dokumentu honetan azaldu dugun bezala, kontuan izan behar dugu giza garapen jasangarriak udalaren politika publiko guztiak zeharkatzen dituela. Horrenbestez, berretsi egiten da udal-sail guztiak konpromiso komun horretan inplikatu beharra.

Aurreko planean planteatu zen bezala, Donostiako Udalaren Lankidetzarako, Elkartasunerako eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzarako V. Plan honek parte hartzeko hiru estrategia hauei jarraituko die:

- Lankidetzako eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako Udal Kontseilua sendotzen eta aberasten jarraitzea. Hasiera–hasieratik, onespren maila handiko parte–hartze gunea izan da kontseilu hori, eta etengabe berrikusi da, hobeto jarduteko eta errealitate berrietara egokitzeko. Orain ere funtsezko bidea Udalaren eta sektoreko erakundeen arteko elkarrizketarako, eta, hala, abian dauden ekimenak zuzenean ezagutzeko eta proposamenak, hausnarketak eta aldarrikapenak jasotzeko modu ona ematen du.
- V. Plan aurrera eramatekoan ere segituko dugu gune horretako partaidetza hobetzen, orain arte egin den bezala, bai eta, ahal bada, udal–politiketan eragiteko gaitasuna indartzen ere.
- Erakundeen arteko koordinazio–guneetan parte hartzea Udalak. Erakunde publiko askok egiten ditu nazioarteko lankidetzak–politikak, eta, beraz, beharrezkoa da administrazioen arteko interakzio–espazio batzuk eratzea. Erakunde bakoitzak, izan ere, Donostiako Udalaren ikuspegiekin eta printzipioekin bat etorriko diren edo ez diren ikuspegiak eta printzipioak emango dizkio bere politikari; baina, desberdintasun horiek goiti–beheiti, funtsezkoa da sinergiak sortzea eta denen ahaleginak lerrotzea, baldin eta lankidetzan eta gizarte eraldaketarako hezkuntzan eragin handiagoa izatea lortuko bada.
- Plan hau Donostiako Udalarena da, eta, alde horretatik, lehentasunezko zat jotzen da Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) erakundeen arteko koordinazio–guneetan duen parte–hartzea indartzen jarraitzea, bereziki Gipuzkoako Foru Aldundia, eLankidetzak eta horrelako erakundeekin. Horrek ez du esan nahi estatuko edo nazioarteko beste gune batzuetan parte ez hartzerik, baina lehentasuna emango diegu lurraldez hurbilen diren lankidetzak–dinamikei, politika publiko partekatuen garapenean artikulatzeko eta koherentzia izateko duten ahalmenagatik.
- Sare eta plataformekin aliantzak egiten jarraitzea, indartzea eta berriak sortzea. Udalarentzat, gizarte eraldaketarako hezkuntza funtsezko zutabea da, behar–beharrezko tresna baita herritar kritiko, aktibo eta solidarioak izatea sustatzeko. Urte askotan jardun dugu hainbat plataformatan laguntza ematen eta aktiboki parte hartzen – Zero Pobrezia Plataforman, adibidez–, eta balio handiko esperientzia metatu dugu.

Hala ere, beharrezkoa iruditzen zaigu esploratzen eta indartzen jarraitzea Udalak V. Plan honen helburuekin bat datozen lan ildoan inguruan ari diren sare eta plataformetan duen presentzia. Era berean, egungo gaiak jorratu eta plan honen edukiarekin lotuta dauden sare eta/edo plataforma berri batzuk sortzea sustatzeko edo proposatzeko aukera ere jasotzen da, sinergiak sortzen jarraitzeko.

■ 6.4 Baliabideak

Edozein politika publikok baliabide batzuk izan behar ditu garatu ahal izateko. Eta lankidetzako udal-politikan era halaxe da. Planaren hurrengo atalean zehaztuko ditugun ardatz estrategikoak eta ekintza-ildoak abian jartzeko ere baliabide batzuk eduki behar dira.

Hala ere, garrantzitsua da baliabide kontzeptua terminoaren zentzu zabalean ulertzea. Plan berri hau inplementatzeko, baliabide klase bat baino gehiago beharko dira: giza baliabideak, baliabide materialak eta baliabide ekonomikoak. Baina, era berean, funtsezkoa izango da borondate politiko sendoa izatea ere, GGKEen eta herritarren parte-hartze aktiboa, eta koordinazio-, ebaluazio- eta jarraipen-mekanismo eraginkorrak. Baliabide-konbinazio horren bidez bakarrik bermatu ahal izango da Plana eraginkorra, eraldatzailea eta jasangarria izatea.

Donostiako Udalak ibilbide luzea du lankidetzaren eta gizarte eraldaketarako hezkuntzaren arloan, eta, bide hori egin duen bitarte horretan, handitu egin dira, arian-arian, politika horietara bideratutako baliabideak. Beti ez da posible izan nahi zen mailara iristea (0,7ra, adibidez); baina, garai konplexuak eta aurrekontu aldetik estuak izan direnean ere, Udalak irrimo eutsi dio lankidetzarekin eta elkartasunarekin duen konpromisoari.

Garapenerako finantzaketaz nazioartean zer eztabaida den kontuan izanda –2025eko ekainean Sevillan egin zen Garapenerako Finantzaketari buruzko Nazioarteko IV. Konferentzian agerian geratu zena–, oraindik eta garrantzitsuagoa da Udalak lankidetzako politikari eusteko eta indartzeko duen borondate politikoa eta ahalegina, bai eta garatzeko esleitzen dizkion baliabideak ere.

Jarraian, V. Plana garatzeko beharrezkotzat jotzen ditugun baliabideak hiru multzotan banatuko ditugu.

- Talde teknikoa. Lankidetzarako udal-politika orok talde tekniko espezializatu bat behar du; Udalak gaur egun duena, adibidez. Baina talde horrek sendotu eta Lankidetzaren Plan honen beharretara egokitua izan behar du. Finkatze hori funtsezkoa da taldea behar bezala ezartzea bermatu eta taldearen osaeran edo pertsona kopuruan aldaketaren bat izan eta haren garapena ez baldintzatzeko. Funtsezkoa da, beraz, talde teknikoaren egonkortasuna eta sendotasuna ziurtatzea.
- Udalak kualifikazio handiko talde bat du, ibilbide, esperientzia, ezagutza eta lanarekiko konpromiso sendoa duten pertsonen osatua. Eta taldearekin jarduten duten eragile guztiek ere (GGKEak, ordezkari politikoak eta beste erakunde batzuk) estimu handitan dute. Plan hau 3 teknikari eta administrari batek osatutako taldearentzat pentsatuta dago. Taldea ez bada langile-kopuru hori izatera iristen, baliteke plan berria egikaritzea ere baldintzatuta geratzea.
- Gainera, taldeak profesionaltasun- eta konpromiso-maila berarekin lan egiten jarraitu ahal izateko, beharrezkoa izango da taldearen prestakuntza indartzea eta etengabeko ikaskuntza sustatzea plana indarrean den aldiaren. Era berean, garrantzitsua izango da koordinazio-guneak sustatzea ere, bai barrukoak (udaleko arloko artekoak), bai kanpokoak (lankidetzaren eremuko beste eragile batzuen artekoak). Eta baita metodologia- eta kudeaketa-tresnen erabilera indartzea ere, Plana ezartzen den garaian haien jarduna orientatu eta hobetzeko.

- Aurrekontua. Garai batzuetan gorabehera batzuk izan badira ere, V. Plan honetan aurreikusitako ekintzek ere izan beharko dute zuzkidura ekonomiko egoki bat, aurrera ateratzeko bidea izango badute. Plan honek berretsi egiten du Udalak duen borondate irmoa: planaren amaieran % 0,7ko aldarrikapen historikoa lortzea. Horretarako, oso lagungarria izan daiteke 2029 arte urtean zenbatsu igo jartzea, Kontseiluaren finantza-taldeak egin zuen bezala.
- Borondate sendo hori bat dator Pedro Sánchez Espainiako presidentek hartutako konpromisoarekin: 2030erako BPGaren % 0,7 Garapenerako Laguntza Ofizialera bideratzea. Hala iragarri zuen Garapenerako Finantzaketari buruzko Nazio Batuen Nazioarteko IV. Konferentzian Sevillan, 2025eko ekainean. Eta bat dator, halaber, EAeko Lankidetzaren Legeak planteatutakoarekin ere.²⁷
- Aurrekontu-jomuga horretarantz egiteko konpromisoak sektorearen eskari historiko bati erantzuten dio, baina, horrez gain, Planak politiken koherentziaren inguruan duen ardatz estrategikoaren parte ere bada, diskurtsoaren eta praktikaren arteko oreka aipatzen baitu ardatz horrek. Helburu hori lortzea funtsezkoa da Donostia benetan solidarioa eta giza garapen jasangarriarekin konprometitua izan dadin, bai tokiko mailan, bai maila globalean.
- Beste baliabide batzuk. Hirugarren bloke hau V. Plana ezartzeko izan behar diren beste baliabide mota batzuei buruzkoa da. Prestakuntzarekin, metodologiarekin, denborekin, baliabide teknikoekin eta abarrekin zerikusia duten baliabideei buruzkoa, zehazki. Planean aurreikusitako ekintzen garapenak aurrera egiteko diren tresnak eta baldintzak dira baliabide horiek. Eta garrantzia berezia hartzen dute berrikuntzara, etengabeko ikaskuntzara eta praktikak hobetzera bideratzen direnean, elementu horiek funtsezkoak baitira Planaren kalitatea bermatzeko eta egungo eta etorkizuneko erronketara egokitzeko.



7 ▶

Onarpena, jarraipena
(UPO), sistematizazioa
eta ebaluazioa



7 Onarpena, jarraipena (UPO), sistematizazioa eta ebaluazioa

• **Onarpena**

Donostiako Udalaren Lankidetzarako, Elkartasunerako eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzarako V. Plana (2026–2029) onartzeko prozesuak bi une bereziki garrantzitsu izango ditu. Alde batetik, Lankidetzaren Kontseiluari aurkeztea, Donostiako lankidetzaren eta elkartasunaren sektorearen ikuspegia eta posizionamendua jasotzeko erreferentea baita kontseilu hori. Eta, bestetik, azken dokumentua Gobernu Batzordean onartzea. Eta han onartutakoan, zabaldu egingo da dokumentua, bai Udalaren barruan (Udaleko sailei eta zerbitzuei), bai kanpoan (herritar guztiei), Udalaren webgunearen bidez.

• **Jarraipena, Urteko Plan Operatiboaren (UPO) bidez**

Aurreko planean, urteko plan operatiboek funtsezko eginkizuna bete zuten IV. Planaren barruan urtero egindako lana egituratzeko eta haren jarraipena egiteko. Etapa berri honetan ere tresna hori erabiliko dugu, ekintzak sistematikoki antolatzeke eta etengabeko jarraipena egiteko modua ematen du-eta.

Urteko plan operatiboak Donostiako Udalaren Lankidetzarako, Elkartasunerako eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzarako Udal Planaren barruan sartuta izango dira, eta haiek izango dira Planean jarritako helburuak urtero-urtero zehaztuko dituzten tresnak. Haien eginkizun nagusia urteko jarduerak planifikatzea, antolatzea eta bideratzea izango da, V. Plan honetako printzipio, helburu eta lehentasunezko erremuekin bat datoze la ziurtatu eta Udalak lankidetzarako eta gizarte eraldaketarako hezkuntzarako izango duen aurrekontua eraginkortasunez kudeatuta.

Urteko plan horietan adierazi eta zehaztuko dira egin behar diren ekintzak, argi eta garbi jarrita: plana gauzatzeko arduraduna(k), aurreikusitako egutegia (kronograma baten bidez) eta plana ezartzeko izan behar diren baliabideak. Gainera, ekintza bakoitzarekin batera adierazleak ere jarri beharko dira, betetze-maila ebaluatu eta, hartara, planaren aurrerapenaren jarraipen zorrotza eta gardena egiteko.

Plan berriaren aurreneko urtean, talde teknikoak erabiliko duen urteko plan operatiboa hobetu edo berria egingo da, eraginkortasuna hobetzeko eta planifikatutako ekintzen jarraipena egiteko. Horretarako, dokumentu partekatu bat egingo da, langile guztiak aldi berean eskuratzeko modukoa. Horrela, bada, artxibo bakarra eraikiko da, eta, han sartuko dira, egindako unean berean, egindako ekintzak. Horri esker, urte guztian etengabe egiten arituko da urteko plan operatiboaren jarraipen-txostena, epealdia bukatutakoan osatzen aritu gabe.

Urte natural bakoitzaren hasieran egingo da –aurreneko hiruhilekoa bukatu baino lehen, nahitaez– urtean urteko plan operatiboa. Horrekin batera, plana ezartzeko lehen urtean izan ezik, txosten bat ere idatziko da –aurreko urteko plan operatiboaren betetze-maila jasoko duen oroitidazkia–, eta han adieraziko dira egindako aurrerapausoak eta eginkizun garatutako ekintzak. Horrela, urteko plan operatiboa tresna dinamikoa da, une bakoitzean hautemandako beharretara egokitzeko eta egokitze josten diren aldaketak txertatzeko

bidea ematen duena, eta, horrela, plangintza malgua eta testuinguruaren izatearekin bat datorrena izatea bermatzen da.

Bi dokumentuak, urteko plan operatiboa eta oroitidazkia, Lankidetzako Udal Kontseiluak urtean izaten duen aurreneko bileran aurkeztuko dira, gardentasun-ariketa egiteko ez eze, baita lankidetzaren sektorearen ekarpenak eta proposamenak jasotzeko modua izateko ere.

- **Sistematizazioa.**

Askotan, urte bat baino gehiago irauten duten planak izaten direnean (hau berau, adibidez; lau urte izango baititu), plana amaitu arte itxaroten da ebaluazioa egiteko. Baina, Donostiako Udalak uste du beste tresna batzuk ere sartu egin behar direla, jarraipen handiagoa egin ahal izateko eta, aldi berean, etorkizuneko jarduketak hobetzeko ikaskuntzak ateratzeko haietatik.

Horregatik, sistematizazioa sartzearen alde egin dugu, Plana aurrera eramatekoan beste tresna bat izan dadin. Hala, V. Planean, sistematizazioa izango da prozesu bat, plana aurrera eramatekoan sortutako informazioa eta esperientziak antolatu eta kritikoki aztertzeke. Erabakiak errazago hartzeko, kudeaketa hobetzeko eta etorkizunerako asko balio duten ikasgaiak jasotzeko bidea ematen duen tresna da sistematizazioa guretzat.

Ez du dokumentu-bilketa huts bat izan behar; baizik eta ezagutza praktikoaren eraikuntza kolektiboa izatea eskatzen du, ekintzen inplementazioa doitzen eta haien eraginkortasuna eta eragina maximizatzen lagunduko duena. V. Plana aurrera eramatekoan erabiltzen dugunean, tresna horri esker, hobekuntzak denbora errealean egin, kudeaketa gardenagoa sustatu, erakundearen ikaskuntza erraztu eta funtsezko inputak sortu ahal izango ditugu, bihar-etzi lankidetzaren arloan esku hartzeko.

- **Ebaluazioa.**

Ebaluazio-mota asko daude; baina, V. Planaren indarraldia bukatutakoan egingo den azken ebaluazioaz ari gara hemen. Ebaluazio hori funtsezko tresna da Lankidetzarako V. Udal Planerako; V. Plan osoaren eraginkortasuna eta lortutako emaitzak sistematikoki eta, ahal den neurrian, objektiboki aztertzeke modua ematen du-eta.

Funtsezko tresna da, gardentasun eta herritarrei kontuak emate aldetik duen balioagatik ez eze, baita ikaskuntzak sortzeko eta lankidetzaren esparruan etorkizuneko udal-planen hobekuntza orientatzeko duen balioagatik ere.

Hala, transmisio-mekanismo egoki batzuk izan behar dira (hala nola Udalaren webgunea) txostena zabaltzeko, bai Udalaren barrura, bai beste erakunde batzuetara, bai sektoreko erakundeetara, bai eta, oro har, herritarrengana ere. Txosten hori Lankidetzako Udal Kontseiluak V. Planaren indarraldia amaitu ondoren izaten duen aurreneko edo bigarrenko bileran aurkeztu beharko da.

Objektibotasun-maila handiagoa izateko, funtsezkoa da azken ebaluazioa kanpoan egin izatea. Era berean, komeni da ebaluazio hori amaitu eta hurrengo plana egiteko prozesua hasi bitartean denbora gehiegi ez pasatzea ere. Horrela, egindako lanak segida izatea eta jasotako ikaskuntzak benetan txertatzea bermatzen da, eta hurrengo plangintza-zikloa hobetu eta indartu ahal izatea, hartara.



8

3 Apustu estrategiko,
15 ekintza-lerro



8 3 Apustu estrategiko, 15 ekintza-lerro

Donostiako Udalaren Lankidetzarako, Elkartasunerako eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzarako V. Plan hau (2026–2029) aurrekoaren jarraipena izateko planteatuta dago, lehen ere behin baino gehiagotan esan dugun bezala. Jarraitze hori, besteak beste, aurreko planean jarritako apustu estrategiko asmo handikoak garatzen segitu beharraren ondorio da. Alde horretatik, ekintza-lerro batzuek segitu egingo dute; beste batzuk, berriz, eguneratu egingo dira, eta ekintza-lerro berri batzuk ere sartuko dira.

V. Plan honetan jasotako ardatz eta ekintza guztiekin batera, kronograma bat, adierazle espezifiko batzuk eta ekintzak aurrera eramateko arduradunak nor izango diren ere zehaztuko da. Elementu horiek berrikusi eta egokitu egingo dira dagozkien urteko plan operatiboetan, testuinguru aldakorrera egokitzea bermatzeko eta Plan berri honen printzipioekin koherentziaz ezartzea ziurtatzeko.

- 1- Lankidetzaren eta gizarte eraldaketarako hezkuntza eredu bat sustatzen jarraitzea, gizarte zuzenak, ekitatiboak, solidarioak eta konprometituak izateko, hegoalde eta iparralde globaleko loturak indartuta.
- 2- Giza Eskubide Jasangarriaren ikuspegia eta Udalaren lankidetzaren politika bideratzen duten printzipioak Donostiako Udalaren politika eta ekintza guztietan koherentziaz txerta daitezzen sustatzea.
- 3- Gizarte eraldaketarako hezkuntzaren (GEH) eta elkartasunaren eremuko eragile mordo baten arteko koordinazioa eta tokiko/munduko aliantzak finkatzen eta indartzen jarraitzea.

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA

Lankidetzaren eta gizarte eraldaketarako hezkuntza eredu bat sustatzen jarraitzea, gizarte zuzenak, ekitatiboak, solidarioak eta konprometituak izateko, hegoalde eta iparralde globaleko loturak indartuta.

Ardatz honek Udalaren Lankidetzaren Bulegoak bultzatutako ekintzak biltzen ditu, eta hainbat jardura-modalitate hartzen ditu barnean, hala nola Garapenerako Lankidetzaren, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza (GEH) eta Ekintza Humanitarioa. Planteatzen diren ekintzak aurrera eramateko, tresna asko daude (bai lankidetzaren zuzenekoak, bai dirulaguntza deialdietakoak), gure ikuspegia zehazki ezartzeko modua ematen dutenak. Plan honetan den berritasun bat Gipuzkoako Larrialdietarako Funtsa sortzea da, larrialdiei arinago eta koordinatuagoa erantzuteko, lurraldeko beste erakunde batzuekin lankidetzan.

Ardatz honek, Udalak zuzeneko lankidetzan egin duen ibilbidearen parte diren ekimen historikoekin duen konpromisoa jaso eta berretsi ere egiten du. Hala, besteak beste,

programa hauen aldeko apustua egiten jarraituko dugu: Donostia Mundu Artean, herri palestinarrei eta sahararrei ematen zaien laguntza –orain inoiz baino beharrezkoagoa den laguntza–, Euskal Fondoan aktiboki parte hartzea eta abar. Era berean, etengabeko ikaskuntza integratzea sustatzen ere jarraituko dugu, Udalak lankidetzan, elkartasunean eta gizarte eraldaketarako hezkuntzan egiten du ekintza indartzeko funtsezko tresna baita hori.

Ardatz estrategikoaren adierazleak:

- V. Plan honek dituen tresnak, berriak barne, koherenteak dira Planaren printzipio eta balioekin.
- Bada herritar kritiko, solidario eta aktiboak sortzeko gaia.
- Udalak bultzatutako ekintza guztietan txertatuta dago iparraldearen eta hegoaldearen arteko lotura globalaren ikuspegia.

1.1 ekintza-lerroa

Plan honen ikuspegiari koherentziaz erantzungo dioten dirulaguntza tresnak izatea.

Dirulaguntza deialdien bidez ematen du Donostiako Udalak bere lankidetzak-baliabideen parte handi bat. Bi modalitatetan egituratzen dira. Bat, lehia-konkurrentziakoa (garapenerako lankidetzako eta gizarte eraldaketarako hezkuntzarako proiektuetarako). Eta bestea irekia eta jarraitua da (ekintza humanitariorako), jarritako funtsak amaitu arte. Ezinbestekoa da finantzaketa-lerro eta haiei lotutako tresna guztiek plan honen helburu eta jarraibideekin koherentzia erabatekoa izatea bermatzea; helburu eta jarraibide horiek oinarri arautzaileetan, balorazio-irizpideetan edota laguntza emandako ekimenen ebazpenetan jarritakok izan.

Ekintza	Adierazleak	Kronograma			
1.1.1. Orain arte izan den deialdi mordo handiko baremazio-oinarriak eta -irizpideak berrikustea eta eguneratzea, eguneratu behar izanez gero	- Egindako berrikuspena - Egindako eguneratzea. - Kontseiluaren Oinarri Taldean landua	2026	2027	2028	2029
1.1.2. Deialdien ebazpenak egungo planarekin koherenteak direla berrikustea eta bermatzea	- Planaren printzipioak eta interes bereziko eremuak kontuan hartuta aztertzea eta berrikustea ebazpenak.	2026	2027	2028	2029
1.1.3. Erakundeen benetako premiei erantzungo dieten tresna berri batzuk sortzeko posibilitatea aztertzea	- Kontseiluari galdetzea aurrera jarraitu edo ez - Erantzuna baiezkoa bada, sortu tresna berria(k) - Kontseiluari aurkeztea	2026	2027	2028	2029
Arduraduna: → Lankidetzak Saileko teknikariak. Kontrastea: → Lankidetzak-kontseilua.					

1.2 ekintza-lerroa

Lankidetza Sailaren Gizarte eraldaketarako Hezkuntza lana indartzen segitzea, Donostiako lankidetza-sektorearekin koordinatuta eta plan honen printzipioei jarraituz.

Udalak ibilbide luzea egin du lankidetzaren eremuan; elkartasuna bultzatzeko, herritar kritiko eta arduratsuak sustatzeko eta iparralde eta hegoalde globalaren arteko loturak indartzeko politikak sendotuz. Hori horrela da, alde batetik, jarduera-agenda bat antolatuta izaten delako hirian, betiere GGKEek bultzatutako ekimenak osatzen eta gai interesgarri berriak sartzen saiatzen dena. Eta, bestetik, Donostia Mundu Artean programa delako, hiriaren agenda solidarioa ikusarazten eta egituratzen duen komunikazio-tresna. Plan honen helburua bi ildoak finkatzea, sakontzea eta hobetzea da.

Ekintza	Adierazleak	Kronograma			
1.2.1. Planaren printzipioen ildotik doazen gizarte eraldaketarako hezkuntzako jarduerak egitea	<ul style="list-style-type: none"> - Urtean gutxienez 5 jarduera antolatzea - Urteko plan operatiboetan jasotako lan-lerroak - Jardueretan izandako asistentzia eta balorazioak jasotzea 	2026	2027	2028	2029
1.2.2. Donostia Mundu Arteanen agenda zabaltzea	<ul style="list-style-type: none"> - Hedapen-estrategia hobetu - Tresnaren erabilerari eta balorazioari buruzko datuak biltzea - Amaierako barne-ebaluazioa 	2026	2027	2028	2029
1.2.3. Aitorpen instituzionala egitea Donostiako lankidetzari egindako ekarpenagatik nabarmendutako erakunderen bati	<ul style="list-style-type: none"> - Irizpideak jarrita edukitzea - Urteko ekitaldia zehaztuta - Urtean egindako jarduera 	2026	2027	2028	2029
1.2.4. Bidezko merkataritza eta kontsumo kontzientea eta arduratsua babesten jarraitzea	<ul style="list-style-type: none"> - Urteko aurrekontu-ekarpena - Urteko plan operatiboan txostenetan jasotako informazioa 	2026	2027	2028	2029
<p>Arduraduna:</p> <p>→ Lankidetza Saileko teknikariak.</p> <p>Kontrastea:</p> <p>→ Lankidetza Kontseilua.</p>					

1.3 ekintza-lerroa

Donostiako Udalak Saharako eta Palestinako herriekin duen konpromisoari eta ematen dien babesari eustea

Urte batzuk egin eta konpromiso irmoa du Donostiako Udalak Saharako eta Palestinako herriekin. Inplikazio hori modu askotara azaldu da; besteak beste, gizarte eraldaketarako lankidetzak eta hezkuntza-ekimenak finantzatuta, posizionamendu instituzionala adierazita eta misio eta bisita tekniko edo instituzionaletan parte hartuta. Plan honen bidez, berriro egiten da konpromiso horri eusteko eta indartzeko erabakia, herri horietako bizi-baldintzak hobetzen laguntzeko mekanismorik egokienak erabiliz, eta, aldi berean, donostiarrek haien kausak eta errealitatea gehiago ulertu eta sentsibilitate handiagoa izatea sustatuz.

Ekintza	Adierazleak	Kronograma			
1.3.1. Saharako lurraldeetan egin beharreko ekimenak babestea	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzeneko lankidetzako 5 ekimen, gutxienez, Planak irauten duen bitartean. - Oporrak Bakean programari laguntzeko ekintza bat, gutxienez. - Gizarte eraldaketarako hezkuntzako 2 ekimen, gutxienez, Planak irauten duen bitartean - Babes instituzionaleko 4 ekintza, gutxienez, Planak irauten duen bitartean. 	2026	2027	2028	2029
1.3.2. Palestinar herriarekin zerikusia duten ekimenak babestea	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte eraldaketarako hezkuntzako 2 ekimen, gutxienez, Planak irauten duen bitartean - Babes instituzionaleko 4 ekintza, gutxienez, Planak irauten duen bitartean. 	2026	2027	2028	2029
1.3.3. Oporrak Bakean programa egiten jarraitzea	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikabideetan zabaltzea programaren berri - Harrera instituzionala 	2026	2027	2028	2029
1.3.4. Oporrak Bakean programaren 40. urtebetetzea ospatzea	<ul style="list-style-type: none"> - Egindako jarduerak 	2026	2027	2028	2029
Arduraduna: → Lankidetzak Saileko teknikariak.					

1.4 ekintza-lerroa

Donostiako Udalaren lankidetzaren jarraitzea, Euskal Fondoan parte hartuz.

Donostiako Udala Euskal Fondoako kide da 1988az geroztik. EAEko udalerrri asko biltzen dituen funts horretako kide izateak aukera ematen du erakundeen arteko koordinazioa indartzeko eta plan honen lehentasun estrategikoekin bat datozen proiektuak garatzeko, eta, horrela, sustatutako jarduketaren irismena eta eraginkortasuna handitzeko. Plan hau indarrean den bitartean, eutsi egingo zaio babes horri, esku-hartzeen eta printzipio gidarien arteko koherentzia estutzeko eta Donostiak Euskal Fondoaren jardura-eremuan duen parte-hartzea sendotzeko.

Ekintza	Adierazleak	Kronograma			
1.4.1. Euskal Fondoan aktiboki parte hartzea	<ul style="list-style-type: none"> - Urteko aurrekontu-ekarpenera egitea (kuota eta proiektuak) - Funtsaren zenbat bilera eta topaketatar joan den - Donostiako Udalak Euskal Fondoan duen parte-hartzearen balorazio kualitatiboa egitea 	2026	2027	2028	2029
1.4.2. Babestutako proiektuak Plan honen ikuspegiari erantzuten diotela bermatzea	<ul style="list-style-type: none"> - Plan honekin bat datozela-eta babestuko diren proiektuak hautatzeko irizpideak zehaztea - Babestutako proiektuen egokitasuna eta garapena balioestea. - Lankidetzaren Kontseiluari jakinaraztea 	2026	2027	2028	2029
<p>Arduraduna:</p> <p>→ Lankidetzaren Saileko teknikariak.</p>					

1.5 ekintza-lerroa

Etengabeko sistematizazio eta ikaskuntza dinamikak ekarri eta txertatzea Udalak bultzatutako lankidetzaren politikaren garapenean.

Udalaren lankidetzaren politikak tresna-multzo finkatu bat du (garapen-proiektuak, gizarte eraldaketarako hezkuntza-proiektuak, larrialdiko laguntza eta lankidetzaren zuzeneko hitzarmenak eta ekimenak, adibidez), erakutsi dutenak eraginkorrak eta koherenteak direla indartu nahi den ereduarekin eta ikuspegiarekin.

Plan honen barruan, gizarte eraldaketarako lankidetzarako eta hezkuntzarako politiken kudeaketan etengabeko sistematizazio eta ikaskuntza dinamikak txertatzeak zenbateko garrantzia duen kontuan hartuta, planteatzen den helburua da udal-ekintzan hobekuntza-elementuak ekar ditzaketen eta berrikuntza bultzatzen dezaketen kanpoko esperientziak identifikatzea eta aztertzea. Sistematizazioa ikaskuntza-modalitate gehigarri gisa ulertzen da.

Ekintza	Adierazleak	Kronograma			
1.5.1. Udal-lankidetzako beste esperientzia batzuetan garatutako beste tresna berritzaile batzuk ezagutzea	<ul style="list-style-type: none"> - Beste esperientzia batzuk mapatzea - Egindako kontaktu kopurua - Identifikatutako tresnen aplikazioa edo balizko aplikazioa 	2026	2027	2028	2029
1.5.2. Udalak zuzenean babesten dituen programetako batzuk sistematizatzea	<ul style="list-style-type: none"> - Sistematizazioa diseinatzea - Sistematizazioaren azken txostena - Kontseiluari aurkeztea - Udalaren kanalen bidez zabaltzea 	2026	2027	2028	2029
Arduraduna: → Lankidetzaren Saileko teknikariak					

1.6 ekintza-lerroa

Gipuzkoako Larrialdietarako Funtsa sortzeko posibilitateari bultz egitea

Udalak Gipuzkoako Larrialdietarako Funtsa sortzea bultzatuko du, larrialdi humanitarioko egoerei aurre egiteko tresna arinagoa eta eraginkorragoa izan dadin. Funtz horren helburua izango da ahaleginak antolatzea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta lurraldeko beste erakunde batzuekin batera, erakundeen arteko koordinazioa indartuz eta udalek biztanleria zaurgarrienekin duten konpromisoa sendotuz. Plana aurrera eramaten den garaian, bideragarritasuna kontsulta eta azterketa prozesu bat egingo da inplikaturako erakundeekin batera, eta, prozesu horren ondoren, funtsezko alderdiak definituko dira: funtsaren irismena, lidergoa eta zuzkidura ekonomikoa, besteak beste.

Ekintza	Adierazleak	Kronograma			
1.6.1. Larrialdietarako Funtsa sortzeko aukera aztertzea	<ul style="list-style-type: none"> - Beste erakunde batzuei aurkezteko dokumentua prestatuta izatea - Bilerak egitea beste erakunde batzuekin (GFA eta erakundeak, adibidez) - Kontsultatutako erakunde kopurua 	2026	2027	2028	2029
1.6.2. Erakunde- eta arau-esparrua sortzea	<ul style="list-style-type: none"> - Erakundeen arteko konpromisoak, funtza sortzeko prozesurako - Gida izateko balio dezaketen beste larrialdi-funtz batzuk aztertuta izatea. 	2026	2027	2028	2029
1.6.3. Larrialdietarako Funtsa eraikitzea	<ul style="list-style-type: none"> - Erakunde publikoen eta erakunde sozialen arteko lan-bilerak - Hitzarmenak, konpromisoak edo egin beharreko zereginen banaketak sinatzea - Funtzari formalki atxikitako erakunde kopurua - Funtsera ekarpen ekonomikoak egiteko irizpideak eta finantzaketa-mekanismo jasangarriak ezarrita izatea 	2026	2027	2028	2029
1.6.4. Larrialdietarako Funtsa aurkeztea	<ul style="list-style-type: none"> - Funtzaren aurkezpen publikoa egitea - Lankidetzaren Kontseiluari aurkeztea 	2026	2027	2028	2029
<p>Arduraduna:</p> <p>→ Lankidetzaren Saileko teknikariak.</p> <p>Kontrastea:</p> <p>→ Lankidetzaren Kontseilua</p>					

2. ARDATZ ESTRATEGIKOA

Giza Eskubide Jasangarriaren ikuspegia eta Udalaren lankidetzaren politika bideratzen duten printzipioak Donostiako Udalaren politika eta ekintza guztietan koherentziaz txerta daitezela sustatzea.

Donostiako Udalak denbora darama Giza Eskubide Jasangarrien (GEJ) ikuspegian oinarritutako lankidetzaren aldeko apustua egiten. Ardatz honek erakundeak bultzatutako politiken koherentzian aurrera egin nahi du, haren printzipioak Udalaren ekintza guztietan integratuz.

Erronka nagusietako bat udal-erlo guztiak inplikatzeko da oraindik ere. Prozesu hori aurreko planarekin hasi zen, eta oraindik ere funtsezkoa da politiken benetako koherentzia lortzeko. Aurreko zikloan bezala, bi lan-ildo jorratuko dira nagusiki. Alde batetik, lankidetzaren politika indartuko da baliabide egokiak esleituz (ekonomikoak, giza baliabideak, materialak eta abar). Bestetik, beste arlo eta sail batzuetan garatzen ari diren ekintzak identifikatu eta ezagutu nahi dira, giza eskubide jasangarrien ikuspegitik, ahaleginak lerrokatzeko eta politiken koherentzia eraikitzen jarraitzeko. Horretarako, aurreko planean bezala jarraituko dugu: diagnostikoa, jakintza eta egitea.

Ardatz honetan jasotako ekintzak inplementatzeko, funtsezkoa da eragileen inplikazioa. Horregatik, Lankidetzako talde teknikoaren, Udaleko kargu politikoen, Udaleko sailen eta Lankidetzako Udal Kontseiluaren Eragin Politikoko Taldearen arteko lankidetzaren eta koordinazioa sustatzera bideratuko da lanaren parte bat.

Ardatz estrategikoaren adierazleak:

- Behar beste baliabide emanda finkatzen eta sendotzen du bere lankidetzaren politika Donostiako Udalak.
- Giza eskubide jasangarrien ikuspegia eta V. Plan honen printzipioak Udalaren politika guztietan txertatzen jarraitzen dugu.
- Plan hau bukatu eta gero ere adibidetarako balioko duten esperientzia batzuk sistematizatu egiten ditugu.

2.1 ekintza-lerroa

Donostiako Udalak lankidetzaren politikekin duen aurrekontu-konpromisoa indartu eta finkatzea

Erakunde baten politiken koherentziaz hitz egiten denean, adierazlerik argienetako bat erakundeak politika zehatz horri ematen dion aurrekontua izaten da. Lankidetzaren politika sendoa eta ondo errotua izan dadin, hura aurrera eramateko izan behar diren baliabideak izan behar ditu. Hala dago jasota 2030 Agendan, 17. GJHan eta Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzari eta Elkartasunari buruzko 3/2024 Legearen 16. artikuluan, esate baterako.

Udalak azken urteotan hartu duen konpromisoari jarraitu eta, Plana indarrean den denboran behintzat eutsi egin nahi diogu politika horretara bideratutako aurrekontuari, Udalaren aurrekontu orokor bateratua erreferentziaz hartuta. Horrela, politika horren finantzaketan atzerapausorik ez izatea ziurtatzen dugu.

Hala ere, aurrekontu hori pixkanaka-pixkanaka handitzea da helburua, eta Planaren indarraldia amaitzen denean, aurrekontu finkatuaren % 0,7ko aldarrikapen historikoa lortzea.

Hori guztia gardentasuna eta informazioa eskuratzeko bidea izatearen ikuspegitik garatuko dugu, Planean hartutako konpromisoen betetze-maila ebaluatu ahal izateko. Informazio hori herritarrei, oro har, eta, bereziki, sektoreko erakundeei emango zaie, Lankidetzaren Kontseiluan txosten bat aurkeztuta urtero, aurrekontu-esparruari eta diruzenbatekoak esleitzeko jarraitutako prozedurari buruzkoa.

Ekintza	Adierazleak	Kronograma			
<p>2.1.1. Udalak lankidetzaren politikekin duen aurrekontu-konpromisoari eustea gutxienez.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Urteko aurrekontua onartuta izatea - Lankidetzaren bideratutako aurrekontuaren ehunekoa, aurrekontu orokor finkatuaren gainean - Urteko lankidetzarako UPOa eta aurrekontuaren banaketa 	2026	2027	2028	2029
<p>2.1.2. % 0,7a lortzeko bidean aurrera egitea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Plana indarrean izango den urteetan zer aurrekontu izango den zenbatea - Lankidetzaren urteetako plan operatiboak eta aurrekontuaren banaketa - Plan honen garapenaren urteko jarraipen-txostenak 	2026	2027	2028	2029
<p>2.1.3. Gardentasuna eta informazioa eskuratzeko bidea izatea bermatzeko neurriak ezartzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Urtero informazio-saioak egitea Kontseiluan - Aurrekontuari buruzko informazioa webgunean argitaratzea - Jarraipen-txostenak eta urteko memoriak 	2026	2027	2028	2029
<p>Arduraduna:</p> <p>→ Lankidetzaren Saileko teknikariak.</p> <p>Kontrastea:</p> <p>→ Lankidetzaren Kontseilua</p>					

2.2 ekintza-lerroa

Informazioaren, gardentasunaren, kalitatearen eta kudeaketaren etengabeko hobekuntzaren printzipioei erantzungo dien lankidetzaren politika bultzatzen segitzea.

Funtsezkoa da lankidetzarako udal-politikak gardentasun- eta kalitate-printzipioekin bat datorren kudeaketa bermatzeko moduko tresnak eta prozedurak izatea. Alde horretatik, hauek izan dira udal-lankidetzaren alderdi nagusiak: sektoreko erakundeekin prozesu argiak eta partekatuak ezartzea, politikaren kudeaketari buruzko informazio garrantzitsua eskuratzeko aukera bermatzea eta hobetzeko aukerak identifikatzea. Horretarako, Plan honek elementu horiek guztiak sendotu nahi ditu, nola saileko talde teknikoa, hala diren informazio-, jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak indartuta.

Ekintza	Adierazleak	Kronograma			
2.2.1. Lankidetzaren politikaren garapenari buruzko jarraipen-memoriak egitea eta webgunean eskuragarri jartzea	<ul style="list-style-type: none"> - Urteko memoriak eginda izatea - Memoriak Lankidetzaren Kontseiluari aurkeztuta izatea - Memoriak webgunean eskuragarri izatea 	2026	2027	2028	2029
2.2.2. Webgunea eta sare sozialak eguneratuta edukitzea, udal lankidetzarako politikarako garrantzitsua den informazio guztiarekin	<ul style="list-style-type: none"> - Deialdiei eta prozedurei buruzko dokumentazio garrantzitsua, webgunean eskuragarri izatea. - Webgunea etengabe eguneratzea - Euskal lankidetzaren publikoaren ataria elikatzea 	2026	2027	2028	2029
2.2.3. Kalitate-proiektuen jarraipen-sistema edukitzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Bilerak egitea erakundeekin eta kontrako alderdiekin - Erakundeek egindako eskaerei kasu eginda izatea - Teknikariek lankidetzaren proiektuetara egindako bidaiak kopurua - Finantzatutako gizarte eraldaketarako hezkuntzako ekimenetan parte hartzea teknikariek 	2026	2027	2028	2029
2.2.4. Talde teknikoaren gaitasunak indartzea	<ul style="list-style-type: none"> - Talde teknikoak gutxienez 3 prestakuntza-gune edo -ikastaro egitea urtean - Barruko lana berrantolatu eta Plan honetako jarduerekin bat etortzeko moduan jarrita izatea 	2026	2027	2028	2029
2.2.5. Urteko plan operatiboaren tresna indartzea, talde teknikoaren lana errazteko tresna gisa	<ul style="list-style-type: none"> - Tresna hobetzea, erabiltzen errazagoa izateko - Karpeta partekatuan jartzea urteko plan operatiboak, ekipo osoak informazioa sartu ahal izan dezan dokumentu berean. - Urtean urteko plan operatiboak eginda izatea - Aurreko urteko plan operatiboaren eta urte berrikoaren txostenak aurkeztuta izatea Lankidetzaren Kontseiluari, urtean egiten duen aurreneko bileran. 	2026	2027	2028	2029
Arduraduna: → Lankidetzaren Saileko teknikariak.					

2.3 ekintza-lerroa

Donostiako Udalaren politikak Giza Garapen Jasangarriaren ikuspegiarekin koherenteak izan daitezzen bultzatzen segitzea. DIAGNOSTIKATU

Administrazio publiko baten antolaketa-kulturan eragitea erronka asko planteatzen dituen zeregina da. Politiken koherentziari lotutako ekintzak inplementatzea aurreko planetan ere egin gabe zegoen eta eginkizun segitzen du oraindik ere.

Lankidetzeta Bulegoak, eta baita sektoreko erakundeen parte batek ere, argi dauka giza garapen jasangarria sustatu egin behar dela, eta hala egiten du, Udalaren jardun osoaren oinarritzko printzipio gisa.

Alde horretatik, aurreko planaren ildo beretik jarraituko dugu, diagnostikoan sakontzen; zeren funtsezkoa da egiten ari dena ezagutzen jarraitzea, politiken koherentziaren bideari jarraitu ahal izateko.

Ekintza	Adierazleak	Kronograma			
2.3.1. Beste sail batzuen planetan politiken koherentziako jarduerak sartzeko aukera aztertzea	<ul style="list-style-type: none"> - Bilerak egitea inplikaturako sailekin - Prozesuaren garapenaren jarraipena egitea eta haren berri ematea 	2026	2027	2028	2029
2.3.2. Udalak enpresei ematen dizkien dirulaguntzak aztertzea, giza garapen jasangarriaren aldeko politikekin bat datozen klausulak proposatzeko	<ul style="list-style-type: none"> - Talde teknikoak eta Kontseiluaren koherentzia-taldeak fitxa bat prestatuta izatea informazioa biltzeko. - Klausula batzuk identifikatuta eta prest edukitzea enpresei etorkizunean emango zaizkien dirulaguntzetan sartzeko proposatzeko 	2026	2027	2028	2029
2.3.3. Udal sail batzuek nazioarteko elkartasunarekin lotuta egiten dituzten jarduerak ezagutzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Lankidetzako eta gizarte eraldaketarako hezkuntzako zenbat ekimen identifikatu den - Ekimen horiek Plan honekin duten lotura aztertzea. 	2026	2027	2028	2029
2.3.4. Dirulaguntza-lerroen bidez finantzaturako proiektuetan lan egiten duten erakundeen errealitateak eta eskaerak ezagutzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Udaleko ordezkari politikoek, teknikarien eta hegoalde eta iparralde globaleko erakundeek artean urtean gutxienez 2 bilera egitea, aurrez aurre edo online. - Zenbat komunikazio informatibo eta/edo erakunde babeseko egin den 	2026	2027	2028	2029
<p>Arduraduna:</p> <p>→ Lankidetzako Saileko politikariak eta teknikariak eta Kontseiluko Koherentzia Taldea.</p> <p>Kontrastea:</p> <p>→ Lankidetzako Kontseilua</p>					

2.4 ekintza-lerroa

Udalaren politikak eta giza garapen jasangarriaren aldetik duen ikuspegia bat etor daitezen bultz egiten segitzea JAKITEA

Politiken koherentzia aurrera egitea zaila dela jakin arren, bide horretan aurrera egiteko funtsezko alderdi bat tresna eta ezagutza espezifiko batzuk izatea da, politika hori aurrera nola eraman erakusteko modukoak. Alde horretatik, ekintza-lerro honen helburua da, alde batetik, giza garapen jasangarriaren ikuspegiari eta politiken koherentziari buruzko ezagutza Udaleko sail gehiagotan zabaltzen jarraitzea. Eta, bestetik, beste administrazio publiko batzuek ikuspegi horren zeharkakotasunaren aldetik izandako esperientziak ezagutzen jarraitzea. Horrek Udalean jarduera zehatz batzuk bultzatzeko oinarria indartzen lagunduko du.

Ekintza	Adierazleak	Kronograma			
2.4.1. Udal langileek giza garapen jasangarriaren ikuspegiak eta Plan honen printzipioez dituzten ezagutzak hobetzea, aurkezpen, prestakuntza edo gai espezifiko batzuk lantzeko guneen bidez.	<ul style="list-style-type: none"> - Zenbat prestakuntza-saio edo truke-gune egin diren (gutxienez 3, 2.3.1 jardueran inplikaturako sailekin). - Zenbat pertsona eta sail inplikatatu diren - Prozesuaren balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa 	2026	2027	2028	2029
2.4.2. Gutxienez trukerako gune bat antolatzea beste udalerrri edo administrazio batzuekin, politika koherenteak izateko estrategiak garatzeko beste esperientzia batzuk ezagutze aldera.	<ul style="list-style-type: none"> - Zer truke-gune garatu den - Haren balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa - Zenbat jardunbide egoki edo esperientzia identifikatu diren 	2026	2027	2028	2029
<p>Arduraduna:</p> <p>→ Lankidetzaren Saileko politikariak eta teknikariak eta Kontseiluko Koherentzia Taldea</p> <p>→ Beste sail batzuetako teknikariak eta politikariak</p>					

2.5 ekintza-lerroa

Udalaren politikak eta giza garapen jasangarriaren aldetik duen ikuspegia bat etor daitezen bultz egiten segitzea EGITEA

Azken ekintza-lerro hau behar bezala egiteko modua izango bada, aurreko bi ekintza-lerroak eginda izan behar dira. Gainera, bereziki garrantzitsua da Lankidetzak Sailak aspalditik bultzatzen dituen bi lan-lerroari jarraipena ematea. Alde batetik, gizarte eraldaketarako hezkuntza jarduerak beste udal-arlo batzuekin batera antolatzea; eta, bestetik, kontsumo kontzientea eta arduratsua sustatzea Udalaren barruan (banku etikoa edo klausula sozialak aplikatzea, besteak beste).

Ekintza	Adierazleak	Kronograma			
2.5.1. Udal-gobernuak egiten diren erakunde adierazpenetan hartutako konpromisoen jarraipena egitea	<ul style="list-style-type: none"> - Udalak hartutako konpromisoak dokumentu batean jasota izatea - Jarraipena egitea, zeintzuk bete diren eta zeintzuk ez 	2026	2027	2028	2029
2.5.2. Check-list motako autoebaluazio-tresna bat garatzea, erraza eta arina, giza garapen jasangarriaren aldeko politiken koherentziaz sentsibilizatzeko eta gogoeta egitea sustatzeko udal-arloetan.	<ul style="list-style-type: none"> - Kontseiluko Politiken Koherentzia Taldea eta tresna sortu duen talde teknikoa - Udaleko beste arlo batzuei ere eman zaie tresnaren berri. - Urte bakoitza bukatutakoan, egin da tresnaren jarraipen-txosten txiki bat 	2026	2027	2028	2029
2.5.3. Gizarte eraldaketarako hezkuntzaren aldeko ekintza batzuk antolatzea beste sail batzuekin batera	<ul style="list-style-type: none"> - Urtean 2 ekintza egin dira - Egindakoaren balorazio kualitatiboak eta kuantitatiboak - Egindako ekintzen urteko txostena 	2026	2027	2028	2029
2.5.4. Udalak tresna zehatz batzuk (klausula sozialak eta kontsumo kontziente eta arduratsua, adibidez) garatzen segitzeko bultz egiten jarraitzea eta segimendua egitea	<ul style="list-style-type: none"> - Garatutako ekintza kopurua - Tresnei buruz egindako balorazioak 	2026	2027	2028	2029

Arduraduna:

- Lankidetzak Saileko politikariak eta teknikariak eta Kontseiluko Koherentzia Taldea
- Beste sail batzuetako teknikariak eta politikariak

3. ARDATZ ESTRATEGIKOA

Gizarte eraldaketarako hezkuntzaren (GEH) eta elkartasunaren eremuko eragile mordo baten arteko koordinazioa eta tokiko/munduko aliantzak finkatzen eta indartzen jarraitzea.

Azken ardatz estrategiko honetan, sektoreko beste instituzio eta erakunde batzuekin sinergiak eta koordinazioa izatea dira ardatz. Helburua da lankidetzaguneak finkatzen, indartzen edo sortzen jarraitzea erakunde publiko batzuekin (eLankidetzaguneak, Gipuzkoako Foru Aldundia, estatuko edo nazioz gairik erakunde batzuk, Lankidetzaguneak Kontseilua eta Euskadiko GGKEen Koordinakundea, konparazio baterako) bai eta V. Plan honen printzipioekin bat datozen tokiko sareekin eta sare globalekin ere.

Erakunde publikoetako kide ez diren eragileekin partekatutako guneetan, bide-lagun rola hartuko du Udalak, eta beste eragile bat gehiago izango da lankidetzagunearen barruan. Kasu horietan, aliantzak sortzen eta finkatzen lagunduko du Udalak, sektorearen beraren lidergoa errespetatu eta diren guneak indartzen lagunduz, ez dagokion protagonismoa hartu gabe.

Ardatz estrategikoaren adierazleak:

- Lankidetzako Udal Kontseilua indartzen jarraitu den, udal-politikan eragiteko gaitasuna handitu eta barne-funtzionamendua hobetuta.
- Sinergiak eta koordinazioak sendotu diren, bai eta sektoreko beste eragile batzuekin harreman berririk egin den ere, bereziki GGKEekin eta beste erakunde publiko batzuekin.
- Sareetan eta plataformetan aktiboki parte hartzen den, Udalaren lankidetzagune politikak aberasteko eta lankidetzako eta ikaskuntza partekatutako guneak sortzeko.

3.1 ekintza-lerroa

Lankidetza Kontseilua Donostiako lankidetza sektoreko erakundeek parte hartzeko organo nagusi gisa sendotzen jarraitzea

Donostiako Lankidetza Kontseilua oinarri-oinarrizko partaidetza-gunea da lankidetzaren eta elkartasunaren aldeko udal-politikak diseinatzeko, ezartzeko eta haien jarraipena egiteko. Haren lana funtsezkoa da, proposamenak sortzeko eta hausnarketa estrategikoak egiteko duen gaitasunagatik ez ezik, baita Udalak bultzatutako ekintzen jarraipenean eta ebaluazioan jokatzeko duen paperagatik ere.

Kontseiluak etengabeko elkarrikeria-bide gisa jarduten du toki-administrazioaren eta lankidetzan naiz gizarte eraldaketarako hezkuntzan lan egiten duten sektoreko erakundeen artean. Eta duen izaera plural eta ordezkatzailerik esker, politika publiko koherenteagoak eta parte-hartzaileagoak eraikitzen ere laguntzen du, eta baita Kontseilua erreferente izatea bat ere Udalaren lankidetza-politika eraldatzailea eta partekatua eraikitzeari dagokionez.

Ekintza	Adierazleak	Kronograma			
3.1.1. Kontseiluaren urteko lan-planak egitea	<ul style="list-style-type: none"> - Urteko lan-planak - Plan horiek aurrera eramaten diren jarraipena egitea. 	2026	2027	2028	2029
3.1.2. Gune horretan kalitatezko parte-hartzea izateko baldintza egokiak sortzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Urtean gutxienez 4 bilera egin eta hainbat dinamika erabiltzea. - Kontseiluaren funtzionamenduari buruzko urteko balorazioa egitea - Gai-zerrendak eta aktak 	2026	2027	2028	2029
3.1.3. Elkarrikeria-gune batzuk jartzea Kontseiluko lantalde espezifikoekin	<ul style="list-style-type: none"> - Antzemandako beharren arabera, zenbat topaketa izan diren - Haien balorazioa 	2026	2027	2028	2029
<p>Arduraduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> → Lankidetza Saileko politikariak eta teknikariak → Lankidetza Kontseilua 					

3.2 ekintza-lerroa

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen lana indartzen jarraitzea

Euskadiko GGKEen Koordinakundea sektoreko erakunde gehien topagune eta artikulazio-gune nagusia da, baita Donostiako lankidetzaren esparrua osatzen dutenena ere. Aspalditik ari da Donostiako Udala erakunde hori indartzearen aldeko apustu irmoa egiten, sinergiak sortzeko, eragileen arteko elkarriketarako eta eragin politiko eta sozialerako plataforma izateko duen balio estrategiko izugarria aitortuz. Plan honek jarraipena eman nahi dio konpromiso instituzional horri, koordinakundearen babesa sendotuz, bereziki Donostiako egoitzan, baina baita lankidetzako politika publikoen kalitatea eta koherentzia hobetzeko funtsezko eragile den aldetik ere.

Era berean, sareko lana dinamizatzeko eragile duen zeregina ere indartu egin nahi dugu, tokiko erakundeen arteko koordinazioa bultzatuz eta esperientzien eta jardunbide egokien trukea sustatuz. Horrela, koordinakundearekin lankidetzan aritzeak, ekintza kolektiboak eraginkortasun handiagoa izatea bermatzeaz gain, elkarte-sarea indartzen eta lankidetzaren eraldatzaileagoa, inklusiboagoa eta Donostiak defendatzen dituen justizia globalaren eta nazioarteko elkartasunaren balioekin bat datorrena sustatzen ere laguntzen du.

Ekintza	Adierazleak	Kronograma			
3.2.1. Koordinakundearen egoitzak aurrera ere Donostian izaten segitzea laguntzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Urteko aurrekontua onartuta izatea - Lankidetzaren hitzarmenaren garapenerako jarraipena egitea 	2026	2027	2028	2029
3.2.2. Udalaren eta Koordinakundearen arteko elkarriketarako guneak sortzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Urtean gutxienez bilera bat eta/edo komunikazio bat egitea - Bien arteko jarduerak antolatuta izatea 	2026	2027	2028	2029
<p>Arduraduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> → Lankidetzaren Saileko politikariak eta teknikariak → Euskadiko GGKEen Koordinakundea 					

3.3 ekintza-lerroa

Beste administrazio eta eragile batzuekiko koordinazioa eta sinergiaren sorrera hobetzea.

Gure ingurunean administrazio asko dira lankidetzaren eta gizarte eraldaketarako hezkuntza-politikak bultzatzen dituztenak, eta ezinbestekoa da helburu komunak identifikatzen diren eremuetan informazio-trukea, koordinazioa –ikuspegi aniztasuna errespetatuta– eta sinergiak sortzea sustatzea. Donostiako Udalak, plan honen esparruan, bereziki garrantzitsutzat jotzen du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, eta baita eLankidetzarekin ere, elkarriketarako eta lankidetzarako diren bideak indartzea.

Garrantzitsua da elkarriketa-kanal horiek aztertzea eta finkatzea, erakundeen arteko harremana arinagoa, eraginkorragoa eta iraunkorragoa izan eta, horrela, lankidetzaren artikulatuagoa, koherenteagoa eta ahaleginak batzera bideratuagoa lortzen laguntzeko, emaitza eraldatzaileak lortzeko hartara.

Ekintza	Adierazleak	Kronograma			
3.3.1. Lan-lerro bateratu bat irekitzea GFArekin, Gipuzkoako Larrialdietarako Funtza sortzeko aukera aztertzeko	<ul style="list-style-type: none"> - 1.6 ekintza-lerroa dela eta egin behar diren bilerak egitea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. - Bileren laburpenak egin eta ekintza horren xehetasunak jasotzea 	2026	2027	2028	2029
3.3.2. Erakundeen arteko koordinazio gune batzuetan parte hartzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Gutxienez 2 bileratan eta gunetan, urtean parte hartzen diren - Horietan izaten den parte hartzearen balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa egitea. 	2026	2027	2028	2029
3.3.3. Aztertzea eskualdeko edo munduko beste foro eta sare batzuetan parte hartzea	<ul style="list-style-type: none"> - Identifikatutako sare kopurua - Horietan parte hartzeko interesa baloratzea. 	2026	2027	2028	2029
Arduraduna:					
→ Lankidetzaren Saileko politikariak eta teknikariak					

3.4 ekintza-lerroa

Sektoreko erakundeen arteko ezagutza-trukea eta aliantza-erakuntza indartzea, eta funtsezko beste eragile batzuekin (gizarte-mugimenduak, hezkuntza-arloa eta ekonomia sozial eta solidarioa, esate baterako) lotura handiagoa izatea ere sustatzea.

Udalaren ustez, funtsezkoa da koordinaziorako, trukerako eta sinergiak sortzeko gune egonkorrak sortzeko bultz egitea, gutxienez bi aldetatik: lankidetzaren sektoreko erakundeen artean, batetik, eta erakunde horien eta sektoreari lotuta ez izan arren gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa eraikitzen laguntzen duten beste eragile batzuen artean, bestetik. Esparru honetan, dirulaguntza lerroak erakundeen arteko partzuergoak eta aliantzak indartzearen aldeko apustua egin du eta egiten jarraitzen du, batera lan egiteko eta egiten diren ahaleginak elkarren osagarriak izateko. V. Plan honek apustu hori zabaldu eta finkatu egin nahi du, eta topaketarako, elkarrizketarako eta hausnarketarako gune berriak bultzatu, bai iparralde eta hegoalde globaleko erakundeen artean, bai gizarte eraldaketarako eragile estrategikoekin ere (gizarte-mugimenduak, hezkuntza-eremua eta ekonomia sozial eta solidarioko ekimenak, besteak beste).

Hegoalde globaleko garapen- eta hezkuntza-prozesuak Donostiako tokiko esperientziekin lotu ahal izateko guneak sortu nahi dira, jakintza-trukea, askotariko errealitateen ikusgarritasuna eta narratiba komunen eraikuntza sustatuz. Elkarrizketarako gune horiek, elkarrengandik ikasteaz gain, oso lagungarriak dira herritarrek nazioarteko elkartasunarekin duten konpromisoa indartzeko eta justizian, ekitatean eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako gizarte eraldaketa sakonagoa eta jasangarriagoa bultzatzeko.

Ekintza	Adierazleak	Kronograma			
3.4.1. Erakundeen artean partzuergoan egindako lana babesten jarraitzea dirulaguntza lerroetan	<ul style="list-style-type: none"> - Lagundutako partzuergo kopurua - Proposamenak barematzeko irizpideak izatea 	2026	2027	2028	2029
3.4.2. Plan honen printzipioekin eta/edo Donostiako elkartasun-agendarekin lotutako gai espezifikoetarako buruzko truke eta hausnarketa guneak sustatzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Parte hartu den guneen balorazio kualitatiboa eta kuantitatiboa egitea - Egindako ekintzak 	2026	2027	2028	2029
Arduraduna: → Lankidetzaren Saileko politikariak eta teknikariak					



DONOSTIAKO
UDALAREN LANKIDETZARAKO,
ELKARTASUNERAKO ETA GIZARTE
ERARALDAKETARAKO HEZKUNTZARAKO
V. GIDA PLANA 2026-2029



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Lankidetzaren
Cooperación